

EZTABAIDA FEMINISTARAKO KAIERAK

2. Zainketak



IZENBURUA: Eztabaida feministarako kaierak:
II. Zainketak

EGILEA: Gipuzkoako Foru Aldundia
Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Organoa

AUTOREAK: Rocío Lleó Fernandez
Cristina Santillan Idoate
Silvia López Gil
Amaia Pérez Orozco

MAKETAZIOA: Imanol Tapia

DATA: 2012ko apirila

ALE-ZENBAKIA: 700

INPRIMAKETA: Gipuzkoako Foru Inprimategia

ISBN: 978-84-7907-732-7
DEPÓSITO LEGAL: SS-973-2015

EZTABAIDA FEMINISTARAKO KAIERAK

II. Zainketak

Autoreak

Rocío Lleó Fernandez
Cristina Santillan Idoate
Silvia López Gil
Amaia Pérez Orozco



Gipuzkoako Foru Aldundia

Diputatu Nagusia

Emakumeen eta Gizonen Bedintasunerako Organoa
Órgano para la Igualdad de Mujeres y Hombres

AURKIBIDEA

Aurkezpena.....	7
1. Hitzaurrea	9
2. Zaintetei buruzko eztabaida feministak	11
3. Jarrera politiko eta kontzeptuala	21
3.1. Zaintzak zertan diren ulertzeko, ikuspegi hirukoitza izan behar dugu	23
3.2. Ikuspegiak, eztabaidak eta beharrezkoak diren galderak	24
4. Zaintetak Gipuzkoako testuinguruan	31
4.1. Biztanleria eta joera demografikoak	31
4.2. Nork jasotzen ditu zaintetak Gipuzkoan? Zainteten eskari potentziala.....	33
4.3. Zainteten antolakuntza Euskadiko et Gipuzkoako etxebizitzetan	35
4.4. Etxeko enplegua.....	41
4.5. Zainteta kate globalak.....	41
4.6. Mendekotasuna artatzeko eta uztartzeko/erantzuki detasunerako zerbitzu publikoak.....	45
5. II Berdintasun planerako iradokitzen ditugun esku-hartze estrategiak	51
5.1. Zaintetarako eskubidearen gaineko eztabaida demokratikoa sustatzea.....	53
5.2. Neurriak antolatuz eskubideak aitortzea.....	55
6. Bibliografia	
6.1. Zaintetak: esparru orokorra	63
6.2. Gurutzaketak beste botere-ardatzekin	63
6.3. Krisialdia	64
6.4. Zaintetaren kulturak	64
6.5. Zainteten antolamendua gaur egun.....	64
6.6. Zaintetarako eskubidea eta herri politika proposamenak.....	65
6.7. Kritika sistemari zaintetetatik.....	66
6.8. Esku-hartze politikorako gidak	67
6.9. Etxeko enplegua.....	67
7. Baliabideak sarean.....	68

AURKEZPENA

Jarraian aurkezten den koaderno hiru dokumentutatik bigarrena da. Berdintasuneko teknikariek eta Gipuzkoako mugimendu feministarekin eta emakumeen elkarteekin irekitako hausnarketa prozesuaren esparruan egindakoak dira, *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Foru Plana* gauzatzean.

Bilduma hau osatzen duten hiru koaderno bidez, hausnarketa sustatu nahi da emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak benetan garratzea eragiten duten gai garrantzitsuen inguruan:

- Bizitzaren iraunkortasuna
- Zaintza lana
- Prozesu ekonomikoak

Dokumentu irekiak dira, oinarrizko helburua dutenak eztabaida sortzea eta errealitatea aztertzea ikuspegi feministatik, gizartearen sentsibilizazioan eta politika publikoen diseinuan sakontzeko asmoz, benetako aldaketa soziala izaten laguntzeko emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde.

Nahiz eta 2012ko apirilean eginak izan, *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Foru Plana* gauatzeko prozesuaren esparruan, ulertzen dugu koaderno horiek hedatzea interesgarria eta baliagarria izan daitekeela hausnarketa prozesuak irekitzeko beste testuinguru batzuetan, eta, horregatik, egokia iruditu zaigu banatzea.

Espero dugu interesgarriak izatea, Gipuzkoako Foru Aldundiak bezala, beren eraginpeko eremuetan gizarte bidezkoago eta berdintasun handiagoko bat lortzen lagundu nahi dutenentzat.

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ORGANOA

1. HITZAURREA

Enfugaren iritziz, zainketak¹ Gipuzkoako Foru Aldundiaren II. Berdintasun Planaren azken helburua den *biziera onari* buruz eztabaidatzeko erdiguneko alderdia dira. Ikuspegi estrategikoa dira bizitza iraunkor bat nola egiten den, eta iraunaraztea/zaintzea merezi duen bizitza mota zer den eztabaidatzeko orduan; eztabaida horiek bizitzaren iraunkortasunaren ardatzean jasoko ditugu. Zainketetan, beti, politika publikoen esparrura mugatu ezin den gehiegitasuna dagoela kontuan hartuta —harremanak, afektuak, komunikazioa, lan zenbakaitza—, ardatz honetan, eta II. Planaren bidez zabaltzen den aukera baliatuz, ikuspegi, helburu eta neurri zehatzei buruz eztabaidatzen dugu eta iradokizunak egiten ditugu.

Gure iritziz, Gipuzkoako Foru Aldundiak azkenik onartzen dituen ikuspegi eta neurrientzako abiapuntua egungo krisialdi-testuingurua izan behar da, eta aintzat izan beharko dute testuinguru hori ikuspegi eta neurriok. Noraino okertuko da zainketen krisia, zainketak zerbitzu publikotik kendu eta etxera aldatzerakoan dagoeneko ikusgarri bihurtu zena? Emakumeen langabezia gero eta handiagoak zin puntutaraino emango die denbora gehiago berriz zaintzeko? Osasunak orokorrean okerrera egiteak (bizi-baldintza eskasagoak direla medio, eta osasun-zerbitzua eskuratzea zailagoa delako) noraino ekarriko du gainkarga bat sendientzat eta, zehazkiago, emakumeentzat? Krisi orokor honen ingurunean, familia tradizionala eta haren baitan dauden genero-eginkizun desberdinak indartzeko arriskua oso larria da, emakumeak direlako gauzak benetan gaizki daudenean erantzuten duten bakarrak, zainketaren etika atzerakoiaren pean.

¹ Nahita erabiltzen dugu plurala, gaur egun zaintzak izaera plurala duelako eta beharrezkoa delako kokatutako nortasun hori berreskuratzeko.

2. ZAINKETEI BURUZKO EZTABAIDA FEMINISTAK

Mugimendu feministetan zainketen gaiaren inguruan egin diren eztabaiden kronologia egiten badugu, aitortu beharra dago ez zela izan 2000ko hamarkadara arte espainiar estatuan gai honetan sakontzeari ekin geniola. Lehen, 70 eta 80ko hamarkadatan, lan indarraren erreprodukzioari buruz eztabaidatzen zen, eta jarrerak banatu egiten ziren etxeko lanek kapitalismoarekin zuten harremana aztertzeke orduan, ideia kapitalarentzako edo gizonentzako onuragarria zela izatearen arabera. Geroago, 90eko hamarkadan, eztabaida nagusia zainketaren birbanaketarekin eta ugalketa lanen erantzukizuna partekatzearekin lotutakoa zen. Bi proposamen oso zehatz egiten ziren: batetik, zainketak ikusaraztea eta balioestea proposatzen zuena, horien unibertsalizazioa eta birbanaketa eskatzeko modu gisa; eta, bestetik, zainketa unibertsalizatzeko zainketak egiteari uztea proposatzen zuen jarrera, hau da, emakumeak zainketak ez egitea disuasio-arma gisa erabiltzera gonbidatzen zituena, horien derrigortasunarekin hausteko helburuz.

2000ko hamarkadatik aurrera, zainketek leku garrantzitsua bete dute analisi eta eztabaida feministetan, mugimendu feministaren baitan dauden maila analitiko eta ikuspegi anitzak nabarmenduz. Azken urteotan egin diren eztabaidetan, hainbat gai jorratu dira: zainketa ohitura zehatzetatik abiatuta, klasea, etnia, adina, aniztasunak eta beste hainbat faktoreen arabera desberdintasunei arreta jarritz, zainketei buruzko diskurtsoetaraino: horiek ezagutzeko ditugun moduak, feminista gisa, proposatu, defendatu edo erasan egiten ditugu.

Bada oinarrizko eztabaida bat, **zainketa zeri esaten diogunari, edo zainketari buruz ari garenean zer esan nahi dugunari buruzkoa**. Mugimendu feministen artean, ados gaude zainketak baliorik gabe utzitako lan gisa, aintzatetsia ez den lan gisa eta ordaintzen ez den lan gisa ulertzeko orduan. Dena den, desadostasunak sortzen dira egungo zainketa siste-

mari buruzko azalpenak emateko orduan, eta egungo egoera aldatzeko estrategiak proposatzeko orduan. Zenbait jarrerak bake sozialaren logika dute oinarri eta horixe proposatzen dute, zainketaren eta partekatutako erantzukizunaren ideia erdian jarritz, eta zainketak gizonak eta emakumeak batzen dituen zerbait bezala ulertuz. Jarrera horretaz gain, bada beste bat, gatazka sozialean oinarritzen dena, eta zainketak emakumeen esplotazioarekin duten lotura ikusaraztea proposatzen duena, lanaren sexuaren araberrako banaketa eta etnia, adina, klasea eta beste hainbat faktoreekin duen zerikusia esparrutzat hartuz. Hori horrela, beste eztabaida bat sortu da: ea zainketek emakumeak bateratzen ote dituzten, geure genero identitatearen funtsezko ezaugarri gisa, edo geure artean banaketa eta desberdintasunak eragiten duten zerbait ote diren.

Beraz, etxeko lanaren eta emakume migratzaileen inguruko eztabaidari "besteei" dagokien arazo gisa hel diezaiokegu (zainketak emakume pobreen zerbait izan dira; orain, migratzaileak dira pobreak, beraz, haiei legokieke), edo zainketak egitera behartuta dauden subjektuen bereizketa eragiten duen maila globaleko berregituraketa kapitalista baten dinamika aintzat hartzen duen ikuspegitik.

Zainketak definitzen saiatzeko orduan, zainketen alderdi emozional eta afektiboa hipertrofiatu eta idealizatzeko joerak arazoak sortzen ditu, izan ere, hizkuntza afektibo horrek —emozionala dena lan horren ezaugarri nagusia edo definitzen duena dela pentsarazten baitu— esparru hau "emakumezkoen" nolakotasunarekin lotzera eramaten gaitu. Eta pentsarazten digu zainketarik hoberena dela sentimenduak agertzen dituen zainketa (familiarren barruan eta emakumeek egiten dutena), eta hori kontraesantetan egongo litzateke zerbitzu publiko nahiko eta kalitatezkoen beharra defendatzearekin.

Horretaz gainera, badaude ere ikuspegi alternatiboak, esaterako, zainketaren dimentsio ekonomikoari garrantzi handia ematen diona, zainketen ekonomia kontzeptuaz baliatzen dena. Ikuspegi horren arabera, zainketak ekonomiaren dimentsio bat gehiago dira, eta emakume, gizon eta estatuek zainketetan izan behar genukeen zeregina identifikatzea eta proposatzea du helburu, zainketek sistema kapitalista mantentzeko orduan bete dezaketenen papera ezbaian jarri gabe, zainketen egun duten itxura kapitalaren eta bizitzaren arteko tentsioa sostengatzeko baliagarria dela azaldu gabe.

Jarrera horretatik zainketak denak funtzionatzeko beharrezkoa den oinarria direla azpimarratzen bada ere, egiten dituzten proposamenak zitalak gerta daitezke, zainketak diruz neurtzen baitira, erakundeek (familiak eta estatuak, nagusiki) izan beharko luketen zeregina zehaztu ahal izateko, eta horiek herri politikatan bihurtzeko.

Zainketen inguruko hainbat ikuspegi daudenez, eta horien definizioa egiteko zailtasunak daudenez, zalantza sortzen da **kontzeptua ordezkatu beharko ote genukeenaren inguruan, definitzeko modu berriak frogatu beharko ote genituzkeenaren inguruan, edo esparru teoriko eta kontzeptual alternatiboak bilatu beharko ote genituzkeenaren inguruan.** Ikuspegietako batek mendekotasunaren arretan jarri du soilik arreta; María Jesús Izquierdok "sendatzearen ikuspegia" esaten dio horri. Ikuspegi horren helburua ez da gailentzen den zainketen eredua eraldatzea, eredu hori herri politiketatik antolatzea baizik. Ikuspegi horren adibide argia dugu 39/2006 Legea, Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa, eta baita azken urteotan mendetasunaren arretarako eta uztartzeko onetsitako herri politika gehienak ere. Ikuspegi murriztaile horren aurrean dago zainketen sistema bera eraldatzea proposatzen duena, eta zainketa sistemaren oinarri diren aurrekontuak ezbaian jartzen dituena. Ikuspegi horren arabera, zainketak elkarren mendekotasunezko errealitate dira, eta ezin dira ulertu norabide bakarraz egiten den jarduera bezala, hau da: ustez autonomoak diren pertsonengandik ustez mendekotasuna duten pertsonengana. Izan ere, pertsona guztiak bizitzaren momentu guztietan behar dituzte zainketak, hainbat motatakoak eta intentsitate desberdinetakoak.

Zainketen banaketarekin lotuta dauden beste ingurune batzuk bilatzekoan, hainbat kontzeptu berreskuratzen ari dira, hala nola elkartasuna eta elkarrekikotasuna. Hala bada, mugimendu feministetatik elkarren arteko zainketak honela definitu dira: elkarrekikotasunez (ematea/jasotzea/itzultzea) eman eta jasotzen direnak. Arazoa da emakumeek ez dutela zainketen truke ezer jasotzen, edo ez dutela jasotzen ematen duten neurri berean. Halaber, galdera bikoitza sortzen da, alegia, nola ezarri elkar mendekotasuna elkarrekikotasun moduan eta ez asimetria moduan, eta nola lortu autonomia aldi berean. Elkarrekikotasunaz hitz egin beharko litzateke egungo famili harreman eta ideologiengatik mugak gaindituz, eta pentsatuz

"afektuak, maitasuna giza harremanen osagarrietako bat besterik ez direla. Beste osagarri bat, era berean oinarritzakoak eta funtsezkoak diren beste batzuen artean: elkarrekiko errespetua, justizia, elkartasuna, autonomia edo askatasuna..."² daudela. Horretaz gainera, kontratu kapitalista elkarrekikotasun pertsonalari egiten zaion gehiegikeria gisa kritikatzeko beste aukerei bide ematen dien posibilitate bat da.

Hori horrela, elkar mendekotasun sozialaren eta nor bere burua aski izatearen ikuspegiari kontra egiten dion **pertsonen autonomiaren** inguruko eztabaida sortzen da. Bi ikuspegiak zalantzak jartzen dute emakumeek haien senarrekiko edo gizonekiko mendekotasuna dutenaren ideia, eta baita jardura maskulinoaren onuradun pasiboak direnaren ideia ere, baina erantzun desberdinak eskaintzen dituzte. Nor bere burua aski izatearen idealaren aurrean, elkar mendekotasun sozialaren ideiak mendekotasuna/autonomia, altruismoa/egoismoa bezalako dikotomiak hausten ditu, pertsonak guztiak *continuum* batean kokatzen direla eta zainduak eta zaintzaileak bezala hainbat modutara kokatzen direla ulertuz, dagokion egoera eta testuinguru zehatzaren arabera. Jarrera horren arabera, faltsua da autonomia/mendekotasuna bereizketa, ordainduak ez diren lanen ukapenean oinarrituz eraikitzen baita. Feminista horientzat, funtsezko galdera hau da: nola lortu autonomia maila nahikoa elkarrekiko mendekotasuna dugula onartuz.

Mugimendu feministak mobilizatu dituen beste eztabaida bat zainketak kolektibizatzearekin lotutakoa izan da, hau da, horiek esparru pribatutik edo etxe barrukotik esparru publikora ateratzeko moduarekin lotutako eztabaida. Ikuspegi horietako baten arabera, etxeko lanak kapitalismoaren egoerekin lotutako zen, kondarrezkoa baitzen, desagertzeko joera izango luketen era ekonomiko primitiboagoen legatua lirateke. Hori dela eta, etxeko produkzioa merkatura edo sektore publikora transferituko zatekeen heinean, ez litzateke existituko, edo ez luke garrantzia handirik izango. Hori horrela gertatu ez dela egiaztatu ahal izan dugu, zaila baita merkantilizatzea, besteren artean, garapen teknologikoak ondasun eta zenbait zerbitzuen produktibotasuna areagotzeko gaitasuna izan arren, zaila delako pertsonentzako zuzeneko zaintza zerbitzuen produktibotasuna areagotu ahal izatea. Zainketak merkatuaren logikaren barruan sartzen direnean,

2 Esteban, Mari Luz (2011), *Crítica del pensamiento amoroso*, Edicions Bellaterra.

desberdintasunak sortzen dituen makina bihurtzen dira, eta zainketaren etika erreakzionarioaren ustiapenean oinarrituz errentagarri bilakatzen den lanbide-txoko bihurtzen dira. Zainketa lanak profesionalizatzeko eskea badago, baina mugimendu feministetan, zalantzan jarri izan da zainketen barruan sartzen diren eginkizun guztiak profesionalizatu eta, ondorioz, kontratatu ote daitezkeen.

Zainketak sozializatzeko proposamen zehatzen inguruko eztabaidak ere egon dira. Batetik, **bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzeko** proposamena dago; bertan, maila erretorikoan behintzat, enplegua eta zainketa berdin-berdin bete nahi diren bi alderdi gisa jorratzen dira. Hori horrela, uztartzea edo kontziliazioa, egun, oposizioan dauden eta bateragarriak ez diren bi guneen artean egiten ari da, lanaren eta bizitza pertsonalaren (etxekoa eta familiakoa) artean, alegia. Emakumeei soilik, eta bereziki ama eta emazteei, dagokien arazo bati erantzuteko kontziliatzen da. Hori horrela izanda, uztartzea norberak maila indibidualean kudeatu beharreko arazo pribatu batetik eratorritako estrategia bilakatzen da. Lkuspegi horretan ordaindutako lana gustukoago denaren ideia datzala ulertzen dugu. Ordaindutako lana emakume eta gizonen burujabetzerako gakoa dela ulertzen da, autonomia finantzarioaren, eskubide sozialen eta autoestimu iturri den heinean. Laneko sozializazioa eta etxeko sozializazioa ez dira berdin aintzatesten, eta emakume askok lanean sozializatzea nahiago dutela adierazten da, askatzaileagoa delako, autonomiaren alde egiten duelako eta ikusten den eta aintzatesten den gunea delako. Jarrera horren aurrean, bestelako mugimendu feministek adierazten dute emakumezkoak enplegura heltzea funtsezkoa izan dela kapitalismoarentzat, hori merkatua malgutu eta ezegonkortu denean gertatu baita. Eta enpleguari ordaindu gabeko etxeko lanaren aurrean lehentasuna emateak, azkenean, garrantzitsua guztia merkatua denaren ideia indartzen duela diote.

Uztartzearen kontzeptua, ustez, gainditzeko, **erantzunkidetasunaren** kontzeptua dugu, bertan elkarrekin lotuta dauden hiru guneren uztartzea hartzen da barne: lanekoa, komunitatekoa edo aktibista eta pribatua. Zainketak guztion eskubide eta ardura bezala aurkezten dira gune guztietan (prestakuntza, aisialdia, astialdia, familiako zainketa, harreman afektibo eta sexualak, aktibismoa, eta abar), hainbat ardura maila daudela eta beharren araberrako hierarkiak daudela aintzat hartuz. Bestalde, erantzunkidetasunak

zainketak gizarteko maila eta eragile guztien artean, berdintasunez, nor bere gain hartuko dituela dakar: esparru publikoan eta etxekean; emakume, gizon eta herri erakundeek (eta azkenaldian enpresei buruz ere hitz egiten da —gizarte erantzukizun korporatiboaren ikuspegitik—, eta baita gizarte zibilari eta abarri buruz ere). Dena den, erantzunkidetasunaren proposamena gauzatu ahal izateko, beharrezkoa da bake soziala; zainketen erantzunkidetasunak gogo onez egiten den zerbait bezala ulertzea dakar, zainketen izaera gatazkatsua alboratuz eta ezkutatzuz, zainketekin lotutako lanpostuen esplotazioa eta ezkutatzen eta aldi berean agerian uzten duten kapitalaren eta bizitzaren arteko gatazka dakartelako.

Zainketen gizartekotzeari buruzko eztabaidan, **zainketaren etika** dimentsionatzen duten jarrerak aurkitzen ditugu, etika horrek gizarte logikan eragina izan dezan proposatzen dutenak. Jarrera horren aurrean, badago beste ikuspegi materialistagoa eta pragmatikagoa. Horren arabera, "ardura berariaz emakumeei egozteak lanaren espezializazioarekin du zerikusia, eta espezializazio horrek zera dakar, batetik, emakumeen bazterkeria soziala eta ekonomikoa, eta, bestetik, pertsonen arreta egokia ez ematea, emakumeak zaintza ahalik eta ondoen ematen saiatu arren" ³. Gainera, emakumeen esplotazioari dagokionez, "zainketaren etika atzerakoia" deritzonetik eratorritako proposamenek duten arriskuaz ohartzen du; ikuspegi hori eztabaida publikoetan gailendu egin da, zainketak esentzializazioaz eta feminizazioaz gabetzea eragotziz (zenbait guneetan gizarteari "ama kutsua" emateari buruz ere hitz egiten dute).

Espainiar estatuko mugimendu feministetan gertatzen ari den beste eztabaidak zerikusia du **arreta egun gauza daitezkeen zainketa politikan jartzearekin, arreta zainketek gizarte eredia zalantzan jartzeko, eta biziera onerako modu berrietara eramango gaituzten eta munduan egoteko modu berriak imajinatzekeo palanka moduan aritzeko dute gaitasunean jartzearekin**. Alde batetik, jarrera erreformistagoak daude, zainketak epe labur eta ertainean antolatzekeo politika zehatzak eskatzen dituztenak, eta herri erakundeak (adibidez, Mendekoen Arretarako Euskal Sistema Publikoa) zainketak gizartekotzeko elementu nagusi gisa ulertzen

³ Abasolo, Olga (2010). "Diálogo Mari Luz Esteban e Isabel Otxoa. El debate feminista en torno al concepto de cuidados", *Boletín ECOS* 10. alea, urtarril-martxoa, CIP-Ecosocial.

duzenak. Zainketekin lotutako herri politika materialak bat etor daitezke birbanaketarekin edo balorizatzearekin. Birbanatzaileek, ezarpen moduan ere, gizon eta emakumeen artean kondarrak banatzeko modu gisa ikus daitezke (ikus PPIINAK ekonomia eta lan politika ardatzaren oinarrizko dokumentuan egindako proposamenak). Bestalde, zainketak birbalorizatzeko politikak emakumeen sakrifizioa eta immolazioaren ideia ezartzen duen egungo zainketa etika idealizatzeko arriskua dute. Birbanaketaren eta birbalorizazioaren arteko eztabaidari dagokionez, María Jesús Izquierdok dio birbanaketa eta birbalorizazioa bereizi ezin daitezkeen prozesuak dira, inoiz ez baita egongo birbanaketarik balorizaziorik egon ezean, eta, aldi berean, lan hori —egiten ez baduzu— inoiz ez da balioesten, eta horrexegatik ezin da alde zuzeneko birbanaketarik egon balorizaziorik egon ezean.

Eraldatze handiagoa bilatzen duten jarreretatik, ekologismoarekin eta deshazkundera bezalako ideologiek bat egiten duten jarrera horietatik, zainketak aldaketarako palanka gisa ulertzen dira, eraldatzeko gaitasun handia dutela aitortuz: indar politiko handia dute, mundua ikusteko dugun modua lehertzen baitute, lanaren eta kontsumoaren arteko bereizketa apurtzen dute, zereginak denbora/ordulariarekin neurtzeko aukera apurtzen dute, zereginak txanponnez neurtzeko aukera apurtzen dute, ikuspegi indibidualista apurtzen dute eta amaierako produktuaren ideia apurtzen dute. Zainketek dena *hankaz gora* jartzen dute. Herri erakundeen zeregina hainbeste azpimarratu izanagatik gizartea antolatzeke modu berrietan pentsatzea eragotzi dela ulertzen da. Irudimen handiagok pentsa ditzakegu modu berri horiek, berritzaileagoak izan daitezke, eta beste eragileek (gizonek, esaterako), honetan guztian duten lekua zalantzan jar dezakete.

Mugimendu feministentzat, bada beste gai nagusi bat, **zainketekin lotutako eztabaida eta proposamenetan hitza nork izan beharko lukeen**arena, hain zuzen ere. Emakumeei eztabaidatan parte har dezaten dei egiten zaie, baina "zaintzaile" gisa, ez "zaindu" gisa. Feminismotik, zainketei horiek dakarten lanaren ikuspegitik ekin zaio, egiten den lanaren ikuspegitik, dakarten esplotaziotik, eta ez hainbeste zainduak izateko beharretik eta ustez zainketak jasotzen dituztenen ikuspegitik. Hori horrela izanik, eztabaida feministetan, "mendekotasuna" dutela aintzatesten diren subjektuen ikuspegia ukatu egiten da. Horren ildotik, feminismoak aliantza gutxi

eratu du aniztasun funtzionala duten pertsonekin⁴ (aliantza adibide bat izan daiteke TodasaZien Gai Prekarioen Agentziarena eta Bizitza Independeritako Foroarena) eta ez du aintzat izan ere zahartzeak gaiari ematen dion begirada.

Mugimendu feministen aldetik, **etxeko lanari eta migrazioari** buruzko eztabaidan sakondu behar da. Etxeko lana gai izugarri korapilatsua da, merkataritzarekin lotutako alderdia eta pribatua den horrekin lotutako bateratzen baitira, eta oraindik ikusmolde familistaren oinordekoa delako. Alderdi sinbolikoari dagokionez, berezikeria egoerak areagotzen dituzten genero, klase, adin eta etnia faktoreak gurutzatzen dira lan honen baitan. Horri dagokionez, aipatu beharra dago etxeko lanen lan-indarrean gertatu den aldaketa; 80ko hamarkadan bertako emakumeek zuten zamarik handiena, gaur egun, berriz, emakume migratzaileek gero eta gehiago parte hartzen dute etxeko lanetan. Horretaz gainera, 94. urteaz gero, zainketen krisialdiarekin eta migrazioari esker lan-esku merkeagoa egotearekin lotutako etxeko lanen hazkundera gertatu da. Hazkunde hori desberdintasun sozialen hazkunderarekin batera gertatu da. Arazo kolektiboari ematen zaien irtenbide pribatu bilakatu da.

Funtsezkoa da nabarmentzea etxeko enplegatu migratzaileek duten ahultasun bereziko egoera (eta galdera da zer gertatuko den erregimen orokorrera igarotzeko orduan administrazio-egoera irregularrean daudenekin); baina, aldi berean, eta etxeko enplegatuen elkarteek gogorarazten duten bezala, kontuz ibili behar da etxeko enplegua eta migrazioa ez parekatzeko, lan hori sortu berria balitz bezala eta ez betidanik emakume "pobreei" (aukera eta hautabide gutxiago dutenei) esleitu zaien lan mota bat bezala. Hau da, oro har desberdintasunari lotutako lan bat (klase, migrazio-estatus, sexuaren arabera).

Azkenik, zenbait mugimendu feministatan eta, bereziki, gizonen elkarreetan eztabaidatu den beste gai bat **maskulinotasunen definizio berriena** izan da; hori estatu mailan gertatzen ari da eta, nagusiki, nazioz gaindiko eremuan, migrazioen eraginez. Estatu mailan, eztabaida hori erabateko berdintasuna eta bereizkeriarik eza bilatuz, jendaurrean haien jarrera

4 Aniztasun funtzionala, pertsonen gaitasunen banaketa hierarkikoari dagokionez.

erakusten duten gizonen elkarten eskutik egiten ari da; "berdintasunean oinarritutako harremanak aldarrikatzen dituzte, aniztasuna errespetatzen dutenak, familia bizitzako esparru guztietan, etxeko lanetan, nork bere buruaren zaintzan eta maite ditugun horien zaintzan, harreman sozialetan eta gatazken irtenbide kooperatiboan dugun esku-hartzea aldarrikatuz".⁵ Bestalde, badira ere gizonen elkarteak eta elkarte mistoan, zenbaitetan haien burua feministatzat definitzen dutenak ("Red Feminista por una Custoria Compartida" izeneko Zaintza Partekatuaaren aldeko Sarea, adibidez), eta gizonek besteen zaintzan berdintasunez esku har dezaten aldarrikatzen dutenak, zehazki eta soilik adin txikikoen zaintzan, genero sistema eta gizon eta emakumeen eraikuntza subjektiboak ezbaian jarri gabe.

Maila transnasionalean dauden maskulinitate berriei dagokienez, migrazioen feminizazioaren testuinguruan, agerian geratu da genero rola aldatzen ari direla nolabait, bizi diren lekuan eta sorterrian zituztenak alderatzen baditugu, eta horrek identitatea aldatzera behartzen dituela, haien posizio subjektiboa aldatzera behartzen dituela. Adibidez, senarren kasuan, aldaketa horiek aldi baterako ziren eta berehala "zuzentzen" ziren, mutil gazteen artean, aldiz, aldaketak estrukturalagoak dira. Horrek zabalik uzten du eskala handian edo familiaren baitan gertatzen diren aldaketek zuzenketa subjektiboak eragin ditzaketaren ikuspegia. Aztertu beharreko gaietako bat litzateke, adibidez, zein leku geratzen zaien gizonei haien subjektibotasuna aldatzen dutenean.

Horiek dira, bildu dugunaren arabera, Espainiar estatuan mugimendu feministetan zainketen inguruan gertatzen ari diren eztabaidak, jarrera agerikoenak edota arrazoituenak jaso ditugu, egoeraren ikuspegi orokorra eskaintze aldera. Jarraian, zainketen gaiaren inguruan dugun jarrera zehazteari ekingo diogu.

5 AHIGE, Berdintasunaren Aldeko Gizonen Elkartearen webgunea: www.ahige.org

3. JARRERA POLITIKO ETA KONTZEPTUALA

Mugimendu feministaren baitako eztabaidatan sortzen ari diren gai nagusi batzuen aurrean proposatzen ditugun jarrera politiko eta kontzeptualak aurkeztu aurretik, jarrera horiek proposatzen zein hipotesitan oinarritzen garen azaldu beharra dugu. Lehenik eta behin, **zainketak bizitza iraunkor egiteko ezinbestekoak dira**, ezegonkorra den bizitza hori iraunkor egiteko, eta zaurgarri gisa ulertzen ditugun pertsonen bizitza iraunkor egiteko.

Zainketei buruz hitz egiten dugunean, bizitza eta osasuna kudeatzeko eta egunero mantentzeko eginkizunei buruz ari gara, pertsonen gorputzen ongizate fisikoaren eta emozionalaren eguneroko berritzeaz alegia, bai norberaren gorputzarenaz, bai besteren gorputzarenaz. Horien barruan sartzen dira, halaber, afektuek eta afekturik ezek zeharkatuta dauden sexudun gorputzez arduratzeko hartzen ditugun zeregin askotarikoak. Zainketen ezaugarria da nola haragizko alderdi material bat (gorputzak zaintzea) hala afektuzko alderdi immaterial bat (emozioak zaintzea) izatea. Jarduera bat eratzen dute, eta jarduera horren emaitza kontsumitu egiten da, egiten den aldi berean; horretan, garrantzitsuena prozesua da, berez, eta baita sortzen den pertsonen arteko harremana ere.

Zainketak ikuspegi zabal batetik ulertzen ditugu, eta ez ditugu mendekotasunera mugatzen. Zainketak **elkarren mendekotasunezko errealitate** direla uste dugu, eta ezin dira ulertu norabide bakarraz egiten den jarduera bezala, hau da: ustez autonomoak diren pertsonengandik ustez mendekotasuna duten pertsonengana. Pertsona guztiek bizitzaren momentu guztietan behar ditugu zainketak, hainbat motatakoak eta intentsitate desberdinetakoak. Autonomia eta mendekotasuneko egoeren artean *continuum* bat dago, eta horretan pertsonak beren burua zaintzeko eta elkar zaintzeko harremanak izateko gaitasun handiagoa edo txikiagoa dute. Gaitasun desberdin hori osasun- eta gizarte-alderdi ukie-

zinek zehaztuta dago. Are gehiago, zainketak biziaren zaugarritasuna eta zerizan komuna kontuan hartzen dituzten jardueren moduan pentsatu behar dira, eta hortik abiatuta, pertsonak autonomo izatea ahalbidetzen duten jardueren moduan.

Zainketak ezin dira ulertu merkatuetan egiten diren produktu-trukeak soilik aintzat hartzen dituen ikuspegi ekonomizista batetik, dena kostua/etekina erabakien segida bat bezala ulertzen duen ikuspegitik eta zereginak eta prozesuak laurdentzen dituen ikuspegitik. Zainketa gehienak merkatuetatik kanpo gertatzen dira. Zainketei buruzko erabakiek faktore sozial eta etikoen eragin handia dute. Zainketek ez dituzte sortzen amaierako produktu zehatz eta trukagarriak, fisikoki eta emozionalki osasuntsuak diren gorputzak baizik. Horren ildotik, zainketak sistema sozioekonomiko osoak egunerokotasunean duen funtzionamendua balioestea ahalbidetzen duen errealitate holistikoa dira.

Zainketak idealizatu beharrean, onartzen dugu zainketek badutela **alderdi atsegin bat eta iluna eta akigarria den beste bat** (errepikakorrak eta ezatseginak diren zeregin horiek, nahitaez egin beharrekoak), bizitza berritzeko biak beharrezkoak badira ere, eta zainketen esparruan botere-harreman maltzurak gertatzen direla ere onartzen dugu (gizonek bere buruarekin asko dutela eta emakumeak gorputz eta ariman ematen direla dioten subjektibotasun heterosexisten eraikuntzaren bitartez, eta mendekotasuna zaintzaileari kontrola ematen dion jarrera pasibo bezala ulertzen duen ikuspegiaren bitartez). Azkenik, zainketei esker uler eta barnera dezakegu bizitza ez dela beti ederra, mina eta heriotza badaudela. Zainketak bizitzaren zaugarritasuna, eta pertsonen arteko eta pertsonen eta naturaren arteko elkar mendekotasuna onartzen duen ikuspegitik aintzatetsita, egungo eredu soziala eta gizarte harremanak eraberritu egin behar ditugu, bere alderdi negatiboak onartuz, eta erakundeetatik zainketan bermatzeko beharrari erantzunez, elkarrekikotasun, aintzatespen eta birbanaketa irizpideak baliatuz. Horren ildotik, interesgarritzat jotzen dugu heriotza duina izateko eskubideari, eutanasiarako eskubideari eta abarri buruzko eztabaidak berreskuratzea, heriotza bizitzaren baitan dagoela onartzen baitute, eta horren gainean erabakiak hartzeko eta iritzia emateko eskubidea dugula onartzen baitute.

3.1. Zaintzak zertan diren ulertzeko, ikuspegi hirukoitza izan behar dugu.

Alde batetik, Gipuzkoako inguruneko zainketen gizarte-antolaketa dago; horrek zehazten du zer zainketa-behar dauden eta nola banatzen diren erantzukizunak, eragile bakoitza zertaz arduratzen den, zer eremutan eta zeren truke (etxeak, enpresak, estatua, etxeko enplegua, emakumeak edo gizonak). Ulertzen dugu **egungo zainketen gizarte-antolaketa bidegabekoa dela**: zainketak gizarte- eta ekonomia-sistemaren oinarri ikusezina dira. Ziurtzat ematen da hor daudela eta mugarik gabeko malgutasuna dutela. Ez dago erantzukizun orokorra zainketen zuzkiduran. Erantzukizun hori pribatizatuta dago etxeetan, emakumeen eskutan; eta horren oinarri dira ordaindu gabeko lana eta etxeko enplegua. Zainketak eztabaida publikoaren esparrura agertzen dira, bakar-bakarrik, falta direnean, eta emakumeei errua leporatzeko. Merkatuaren ikuspegitik irakurtzen dira, eta ez eskubideen ikuspegitik. Ildo horretan, administrazio publikoaren eginkizuna guztiz txikia da, eta enpresek probetxua ateratzen diete musu-truk eskulana berreskuratzen duten zainketei, eta zainketetan negozioa egiteko txoko berri bat aurkitu dute.

Beste alde batetik, **zainketaren kulturak kontuan izan behar ditugu, horiek definitzen baitute zen den zainketa ona, eta arauzko irizpideak ezartzen baitituzte, nork nor zaindu behar duen, non eta zeren truke zehazteko**. Zainketak ez dira errealitate transkultural eta ahistorikoa, aitzitik, gizarte-taldeek, gizarteek, denboran zehar, zainketei buruzko ikuspegi desberdinak dituzte. Ulertzen da egungo proposamenek zainketaren etika idealizatu eta zainketaren etika atzerakoiaren ingurunean nahiz zainketen arau-esparrua familiara mugatzen duen ikusmoldearen ingurunean sustatzen duten, eta emakumeak familiaren ongizateaz arduratuta sentitzea esplotatzen dutenek ez digute uzten zaintzeko gaitasuna funtsean emakumeek jaiotzetik duten ezaugarri bezala emetasuna bera definitzen duena esentzializatzea gainditzen. Era berean, zalantzan jarri behar ditugu elkar mendekotasuna ukatzen duten eta mendekotasunaren eta autonomiaren nozio geldi eta kontrajarriak indartzen dituzten unibertsalizazioaren aurrean zenbait mugimendu feministek egiten dituzten proposamenak. Ingurune horretan, zainketa kontrolatzeko eta eusteko jarduera bezala ulertzen da, eta horrek berekin du, ongizatea nola (bir)sortzen den aztertzeaz gain,

zainketez hitz egitean indarkeriaz hitz egiteko beharra. Proposamen horien aurrean, **zainketei elkarrekikotasunaren ikuspegitik begiratzea** proposatzen dugu, ikuspegi horrek ahalbidetzen baitigu zainketez berriz hausnartzea.

Azkenik, begiratu behar dugu zainketek gizarte eta ekonomiaren egituran duten lekura, lehentasuna eta zentraltasuna ematen zaizkien ala ez, eta nola gurutzatzen diren politika guztiekin, zainketen inguruko politikez harago. Bestela esateko, gizarte-multzoaren oinarri bezala ulertzen diren zainketen alderdi material eta sinbolikoa kontuan izan behar da.

Zainketak gatazkatik edo bake sozialetik ulertu behar ote direnaren gaineko eztabaidari dagokionez, **zainketen oinarri diren gatazka eta esplotazioa onartzen ditugu**. Gainera, egungo zainketa sisteman, **zainketen, desberdintasunen eta ezegonkortasun/bazterkeriaren arteko lotura sistemikoa dago**. Batetik, egoera sozioekonomiko txarragoa dutenek, zainketa gehiago behar dituzte, osasuna desberdintasunen adierazle agregatu bat baita, azken batean, eta egoera berberaren aurrean mendekotasun handiagoa sortzen delako (adibidez, etxea egokituta ez badago, edo laguntzaile pertsonal bat ordaintzeko aukerarik ez badago). Bestalde, egoerarik txarrean daudenek, gehiago zaintzen dute. Azkenik, zaintzeak egoera sozioekonomiko zaugarrian jartzen ditu zaintzaileak. Hori horrela, zainketaren konponketa duinak ezartzeko aukera izatea edo zainketa errealitate ezegonkorra bizitzea, desberdintasun sozialak eragiten dituen funtsezko faktorea da.

Eta, ildo horretan, funtsezkoa da emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna nabarmentzea lana sexuaren arabera banatzeari dagokionez; baina, era berean, azpimarratu behar dugu zainketak oso modu desberdinean banatzen direla, gizarte-klasearen eta migrazio-estatusaren arabera. Zainketa duinak eskuratzeko baliabideak oso desberdin banatuta daude; eta zainketak gizarte-talde batzuek aukeratu ezin duten beste batzuei merke erosten dizkieten lanak dira.

3.2. Ikuspegiak, eztabaidak eta beharrezkoak diren galderak

Jadanik mugimendu feministen baitan eztabaidatzen ari diren gaiez gainera, ulertzen dugu beharrezkoa dela galdera berriak egitea geure buruari,

eztabaida berriak zabaltzea edo ikuspegi berriak proposatzea jarraian azalduko ditugun zenbait gairen inguruan:

1/ Zainketak biopolitikatik ikustea eta aztertzea. Zenbait gauza politikan gauzatu daitezkeen arren, zainketak gizarte normalizazioaren edota gizartearen kontrol gailu biopolitikotik ikusteak gai honen inguruko ikuspegia zabaltzen duela eta aukerak eskaintzen dituela deritzogu; politika bizitza eraikitzearen ikuspegitik pentsatzea ahalbidetzen du. Zainketek eremu pribatua politizatzea ahalbidetzen dute, eremu pribatua kontrolatzeko diren botere-gailua haustea. Inoiz egin dira saiakuntzak zainketek sexualitatearekin duten loturaren inguruan eztabaidatzeko: zainketa lanak ba al du dimentsio sexualik? Lan sexuala zaintza lana al da? Nola eraikitzen gaita botereak bizitza pribatuan zainketen bitartez? Horri, gainera, zainketetatik identitateak nola eraikitzen diren gehitzen badiogu, transfeminismoaren edo queer feminismoaren (sexualitateak eta identitateak bezalako gaiak jorratzen dituen feminismo berriagoa da) arteko bat-etortze guneak sor ditzakegu. Beharbada, hori transfeminismoa gai materialagoetara jartzeko modu bat izan daiteke, eta zainketak apur bat eguneratzeko modu bat, ikuspegi "mindulinagoa" gainditzekoa. Horren ildotik, politika zehatzak bilatzeaz gainera, eztabaidarako guneak sortzea bilatuko genuke. Gakoa bi ikuspegi horiek, herri politikari begira, nola bateratu pentsatzea litzateke.

Gai hau gobernu era berriekin lotu dezakegu. Gobernatzeak gizartearekin eta bizitza intimoarekin lotutako kudeaketa erak barne hartzen ditu. Ikuspegi hori aintzat hartzen badugu, zainketak eztabaidarako eremu pribilegiatu bilakatzen dira, zainketak eremu intimoan gertatzen baitira, bizitzaren berritzean. Eta bizitza politikako gai bihurtzen bada, zainketak funtsezko atala izan daitezke.

2/ Gutxi jorratu den eta, hortaz, egiteke dagoen eztabaida zainketa duinena eta zainketa ezegonkorrena da. Adibidez, etxe enplegatzailearentzat, etxeko lanak zainketa duinak izatea ahalbidetzen du (horrek ez du esan nahi, berez, zainketetara erabat heltzen dela bermatzen denik). Aldiz, langileentzat eta, are gehiago, etorkinentzat, zainketa ezegonkorrera halabeharrez bideratuta egotea esan nahi du; haien zainketa egokiak jasotzeko dituzten aukerak oso txikiak dira, araudian dauden mugengatik, eta lanaren gogortasun fisiko eta emozionalak eraginda,

behin eta berriz agertzen diren arazoengatik. Uztartzea ezinezkoa da eta, amatasuna, zigortu egiten da kasu horretan. Migratzaile izatea tartean sartzen da eta eragina du, lan-baldintza okerragoan sortuz eta gogobetetzailerak diren zainketaren konponketak ezartzeko baliabide gutxiago ekarriz. Baina etxeko lana ere ez da bertako etxe guztientzako erantzuna, batzuentzako soilik da baliagarria.

Zainketa duinetara heltzea hainbat faktoreen arabera da: horiez arduratzeko modu kolektiborik badagoen edo bakar-bakarrik familien erantzukizun bezala uzten diren (era horretan, gizarte-sareen eta erosteko ahalmen desberdinen baitan egongo da), balioesten diren edo ez, pertsona guztien beharrak zuzentasunez onartzen diren edo ez, edo batzuen beharrak lehentasun handiagoko bezala ikusten diren, etab.

Gipuzkoako inguruneko egungo zainketen eremuan, gorpil zoro bat eratu da zainketen, desberdintasunen eta ezegonkortasun/bazterketaren artean, eta, hala, zainketak desberdintasunen bektore bihurtu dira: hau da, zainketa duinak edo eskasak eskuratzea gizarte-bereizketarako funtsezko elementu bat da eta, aldi berean, desberdintasuna birsortzen duen elementu bat.

3/ Zainketak eskubide unibertsal gisa. Zainketak unibertsaltasun eta singularitasunaren irizpideetan oinarrituta dauden pertsona guztien funtsezko eskubide moduan ikusten ez diren neurrian, zainketa duinak eskuratzea ez da ulertuko gizarte-antolaketaren eta politika publikoen garrantzizko alderdi bezala. Alderdi anitzeko eskubide bat da, berekin duelako pertsona guztiak onartzea zaintzeko eskubidea duten subjektu bezala (pertsona guztiak zaintzen dutelako eta zainduak direlako), zainketaren alderdi guztiak aldi berean kontuan hartuta. Horren barnean, hauek egongo lirateke:

- zaindu nahi den edo ez, eta nor zaindu erabakitze eskubidea, eta baldintza duinetan zaindu ahal izatea
- egokiak diren zainketak jasotzeko eskubidea, bizitza-zikloaren egoera eta une desberdinetan; eta nola zaindu behar gaituzten erabakitze eskubidea, zaintzaile kaltegarriei uko egiteko eskubidea bermaturik.
- zainketak diruz neurtzen direnean, lan-baldintza bidezkoak izateko eskubidea.

Zainketarako eskubideak funtzio anizkoitza betetzen du, izan ere errealitate ikusezin bat eskubide-estatusera goratzen du, zainketa (ona) zuzenbideko helburu berri moduan berreginda; era berean, zainketarako eskubidea urratzeko moduak hautematen ditu egungo alderdi anitzeko krisi metatuaren ingurunean, eta zainketak bizitzaren zati bezala —eta ez bizitzaren salbuespen bezala— ulertzetik bereizi ezin den gizarte-erantzukizun bezala nabarmentzen ditu; eta azkenik, eragina baitu zainketak eskuratzeak duen alderdi unibertsalean, murrizketarik gabean. Garbi utzi behar da, unibertsaltasun irizpidearekin batera, singularitasunarena ere aplikatu behar dela, ez dagoelako zaintza nozio bakar bat testuinguru orotarako balio duena, unibertsaltasuna ez delako nozio partikular bat orokortzea; aitzitik, zaintzaren kontzeptua aldakorra da eta testuinguru jakin bakoitzean hartzen du dagokion zentzua. Gerta liteke, agian, zenbait testuinguruan zentzurik ez izatea. Berezitasun horrek ez du zainketarako eskubidea mugatzen, izan ere, benetan funtsezkoa den eztabaida bat zabaltzen du: testuinguru eta leku desberdinetan zaintzeak eta ongi zaintzeak izan dezakeen esanahiari buruzkoa, hau da, azken batean, bizitza ona zerk eratzen duen eztabaidatzea. Galdetu beharko genuke ea posible den bizitza ona izatea zainketa gizarte antolamenduaren erdian jarri gabe, hori baita, azken finean, zainketarako eskubideak aipatzen duen funtsezko puntua.⁶

4/ Emakume guztiei ez zaie leku berdina ematen zainketa zereginetan.

Emakume batzuk bidezko zaintzaile bezala onartzen dira, eta beste batzuei zaintzeko eskubidea ukatzen zaie: Sexu-langileak, lesbianak, transexualak, transgeneroak, eta dibertsitate funtzionala dutenak, besteak beste. emakume horiek araua hausten dute, eta horrek eragiten du emakume horien zaintzeko zilegitasuna berdina ez izatea. Eta horrek zerikusia du zaintzaile-eginkizunari lotutako emetasunarekin. Adibidez, laguntza bidezko ugalketa-teknika jasotzeko edo adoptatzeko talde eta pertsona lesbianek egiten dituzten aldarrikapenek aditzera ematen

⁶ Zainketarako eskubidearen proposamen hori hemendik berreskuratu dugu: Pérez Orozco, Amaia eta López Gil, Silvia (2011): *Desigualdades a flor de piel: Cadenas globales de cuidados. Concreciones en el empleo de hogar y las políticas públicas*, Madril: NBE Emakumeak.

digute ez zaiela onartzen ama edo zaintzaile izateko zilegitasunik. Eta gauza bera gertatzen da dibertsitate funtzionala duten emakumeekin edo sexu-langileei egozten zaien "ama txarra" izatearen gizarte-sinbologiarekin.

5/ Dibertsitate funtzionala duten pertsonen aldetik autonomia aldarrikatzeak erakundeen aurrean alternatiba izango den laguntza pertsonala izateko aukera eskatzearekin du lotura. Laguntzari eta zainketei buruz hitz egitea dakar horrek. Laguntza kontratu bidezko harremana da, non zaindua den pertsonak bere eskubide eta betebeharrak dituen, enplegatzaille gisa, eta laguntzaileak ere eskubide eta betebeharrak dituen langile den heinean. Gure ustez, beharrezkoa da gainditzea pertsona batzuk dimentsio bakarreko subjektutzat hartzen dituzten ikuspegiak —kasu batean: jasotzeko eskubidea; bestean: lan-baldintzak izatea—, izan ere, erraz sortzen baitira batzuen eskubideak besteen eskubideen bizkar lortzea ahalbidetzen duten espiral negatiboak. Helburua litzateke eskubidearen dimentsio anitzetan atzeraelikadura positiboak bilatzea, batzuen eskubideek besteenak zapal ez ditzaten, irtenbideak sortuz. Eztabaida hori lotuta dago zainketak izateko eskubidearen proposamenarekin eta nola eta nork zaindua izateko aukeratzeko eskubidearekin.

6/ Etxeko enplegua: Arlo horretako eskaerak lotuta daude, besteak beste, Langileen Estatutuaren Legearen 2.1.b) artikulua arabera duela gutxi onartu den etxeko enpleguaren lan-araubidearen erreforman (1620/2011 Errege Dekretua) jasotako lan-eskubideak betetzearekin; eta, aldi berean, emakumezko langileen lan-eskubideak zabaltzeko lanean jarraitzea proposatzen da, gainerako sektoreekin erabat parekatzea lortu arte. Gauza da: eta orain, zer? Negoziazio oso gogorak ezartzen ari dira (enplegatzailleek ordu gutxiago kontratatu nahi dituzte, edo soldata jaitsi nahi dute "kompentsatzeko"). Langileak babesten ari al gara? Inplementazioa errazteko tresnak bi alderdiei ematen ari al gara?

Gainera, mugimendu feministen ikuspegitik ez dago garbi etxeko enplegua duintasunez jantzi eta profesionalizatu beharreko lan sektore bat den; edo, aitzitik, neo-mirabeen lan bat den, eta, beraz, betiko desagerrarazi behar den (eta horren ordez, kasu batzuetan zerbitzu publikoak baliatu behar diren, edo kontratazio espezializatuak, edo zainketak eta bizitza beste era batera antolatu behar diren...). Alde horretatik, galdera

sortzen da zenbateraino eman dakioken duintasuna etxeko enpleguari, sistema zalantzan jarri gabe (zainketek oinarri ikusezin gisa betetzen duten papera; mugak ezartzea, pribilegioak mantentzeko modu gisa).

7/ Zainketen globalizazioa eta zainketen kate globalak. Zainketa lanen erregimen desberdinen arteko nazioz gairik elkar mendekotasuna sortzen dute, migrazioen feminizazioarekin lotzen dira eta globalizazioaren giltzarri ezkutuenetako bat dira. Lanaren sexu banaketa birformulatzea eramaten dute (zainketak/desberdintasunak lotura berriz artikulatzea eta horren transnacionalizazioa), birsorkuntza soziala berri pribatizatzea (zainketen krisiari banako irtenbideak, merkantilizatuak, ematea) eta, azken batean, bermatzera, maila globalean ezarritako garapen eredu sozialki sostengaezin baten oinarri ikusezin gisa funtzionatzen jarraituko dutela zainketek.

Horren ildotik, funtsezkoa da nabarmentzea etxeko enplegatu migratzaileek duten ahultasun bereziko egoera (eta galdera da zer gertatuko den erregimen orokorrera igarotzeko administrazio-egoera irregularrean daudenekin); baina, aldi berean, eta etxeko enplegatuen elkarrekin gogorazten duten bezala, kontuz ibili behar da etxeko enplegua eta migrazioa ez parekatzeko, lan hori sortu berria balitz bezala eta ez betidanik emakume "pobreei" (aukera eta hautabide gutxiago dutenei) esleitu zaien lan mota bat. Hau da, oro har desberdintasunari lotutako lan bat (klase, migrazio-estatus, sexuaren arabera).

Gaia egungo krisialdiaren testuinguruan kokatu behar da, eta testuinguru horretan ikusi behar da etxeko enplegua desberdintasun sozialen eta zainketen erantzukizuna zein mailataraino pribatizatzen ari denaren adierazle benetan nabarmen gisa. Geure buruari honako galderak egin diezazkiokegu:

- Emakume migratzaileak kontratatzeak, zein neurritaraino estaltzen du zainketen krisia?
- Zein neurritan ari dira birdimentsionatzen desberdintasun sozialak?
- Bertako emakumeen enplegua handitzeko beharra behin eta berriro aipatzeak zein neurritaraino egiten du hazkunde hori emakume migratzaileen etxeko lanaren bizkar egitea?

8/ Nork bere burua zaintzea. Zaintza lanak bizitzaren eta gorputzen ahultasunaren ikuspegitik aztertzeak, norberaren burua zaintzeari buruzko galderak egitera eramaten du. Norberaren burua zaindu beharra mugimendu feministetan aspalditik landu bada ere, eta denbora, baliabideak eta energia erreklamatu badira ere, geure gorputza eta mugimendua zaintzeko, uste dugu ez zaiola heldu ikuspegi sistemiko batetik. Zer leku hartzen du nork bere burua zaintzeak zainketen gizarte antolamenduan? Era berean aldarrika al dezakete nork bere buruaren zaintza besteen zainketen ardura hartzen ez dutenek eta bizi guztia besteak zaintzen daramatenek? Zein estrategia abiaraz daitezke herri administrazioetatik, enpresetatik eta etxeetatik nork bere burua zaintzen duela bermatzeko?

4. ZAINKETAK GIPIIZKOAKO TESTUINGURUAN⁷

4.1. Biztanleria eta joera demografikoak

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) biztanleriaren guztizkoa 2.172.175 pertsonakoa zen 2009an. Horietatik, 1.109.763 emakumeak ziren, hau da, guztizkoaren % 51,1, eta gizonak, ostera, guztizkoaren % 48,9 ziren. Adin taldeei dagokienez, EAEko lurralde osoan, emakumeen proportzioa gizona baino txikiagoa da 45 urtekoen taldera iritsi arte, eta, hortik aurrera, joera kontrakoa da; izan ere, adinak gora egiten duen heinean, emakumeen proportzioak ere gora egiten du. Bi talde horien arteko aldea handiagoa

⁷ Zailtasunak izan ditugu Gipuzkoan gertatzen dena xehetasun handiz aurkeztu ahal izateko, ez baitago probintziari berriaz dagozkion zainketen gaineko daturik. Sarritan, aipatzen ditugun datuak eta informazioa EAERI dagozkionak dira, autonomia mailan dagoen egoerak, oro har, Gipuzkoakoa islatzen duela ulertu baitugu. Kontsultatu ditugun dokumentuak eta baliabideak jarraian aipatzen direnak izan dira:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika Saila (2012), *Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Aldundiaren bigarren Mapa 2008-2012*.
- Emakunde (2007), *Zainketaren ondorioak. Kontziliazio estrategiak EAEko emakume eta gizonen eguneroko bizitzan*.
- Eustat (2012), *Emakumeak eta Gizonak Euskadin*;
- Eustat (2010), *Zifrak: Emakumeak eta Gizonak Euskadin*;
- Eustat (2010), *Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeari buruzko inkesta*;
- Eustat (2010), *Euskadiko Inmigrazioaren Urtekaria, 2010*;
- Eustat (2008), *Panorama demografikoa 2008*;
- Martínez Recio, Jon (2011), *Estudio del impacto que la crisis económica actual tiene en las cadenas globales de cuidados. Aproximación al caso de Bizkaia*, Tesis de Master;
- Oreka Sarea SL (2011), *Donostian mendekotasun-egoeran dauden pertsonen emandako zainketei buruzko Diagnostika*;
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren mendekotasunaren arretarako, ATH-ELE, eta Eustaten webgunek;
- Euskal Herriko Unibertsitatea, Gizarte Gaietarako Behatokia, Eusko Jaurlaritza (2011). *Familiei laguntzeko Erakundearen Arteko II. Planaren Diagnostika. 2006-2010*.

egiten da 65 urtetik aurrera. Izan ere, hortik aurrera, emakumeek biztanleriaren % 58,3 osatzen dute, eta gizonek, aldiz, % 41,7 bakarrik. Horrek aski ongi frogatzen du zahartzaroaren feminizazio-prozesua.

Gipuzkoako Lurralde Historikoan (1.909 kilometro koadro, Estatuko probintziarik txikiena), 2009ko abenduaren 31n zenbatutako biztanleria 707.629 pertsonakoa zen, eta lurraldeko dentsitatea 370 biztanlekoa zen kilometro koadro bakoitzeko. Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalerrien % 62,49an biztanleria guztiaren % 10,21 bizi da, eta gipuzkoarren gainerako % 35,20a, berriz, bi udalerritan bizi da (Irun eta Donostia).⁸

80ko hamarkadaz geroztik, Gipuzkoako biztanleriak, EAEko lurralde osoko biztanleriaren kasuan bezala, heriotza-tasaren, jaiotza-tasaren eta migrazio-mugimenduen bilakaera oso aldakorak izan ditu. Gorabehera horrek biztanleriaren bolumena eta biztanleen adinaren eta sexuaren araberako banaketa markatu du. Azpimarratu behar da 90eko hamarkadaren erdira arte ugalkortasun-tasa nabarmen murriztu zela eta, 2000. urteaz geroztik, immigrazioak jende asko ekarri duela. Biztanleriaren adin-taldean araberako banaketaren bilakaerari begiratu gero, adin gazteetako biztanleriaren beherakada azkarra eta etengabea ikusten dugu, eta, aldi berean, adin helduenen taldea handitu egiten da. Bi fenomeno horiek jaiotza-tasaren beherakadarekin eta bizi-itxaropena luzatzearekin daude lotuak.

Jaiotza-tasaren beherakada: EAEn, jaiotza-tasa gordina 9,9 izan zen 2008an. Jaiotza-tasaren murrizketa eragin duten faktoreetako bat izan da amatasuna pixkanaka atzeratu egin dela. Amen adinaren araberako banaketa nabarmen aldendu da aurreko hamarkadetan lortutako datuetatik. Izan ere, 2008an 30-34 adin-tartean kokatzen ziren ama gehienak, 90eko hamarkadaren hasierara arte 25-29 adin-tartean kokatzen ziren, eta 80ko hamarkadan askoz gazteagoak ziren, hau da, 20-24 adin-tartekoak.

⁸ Informazio gehiago bilatu behar dugu Gipuzkoako landa-inguruko biztanleriari buruz, inguru horretako biztanleriaren bolumena esanguratsua den ala ez eta horren ezauzgarriak ezagutzeko. Zehazki, oso garrantzitsua da jakitea landa-inguruko biztanleria hiri-ingurukoa baino zahartuagoa dagoen ala ez. Zainketak estaltzeko moduari buruz pentsatzerakoan datu hori jakitea garrantzitsua iruditzen zaigu, normalean hiri-inguruan ematen diren zainketei buruz pentsatzen dugulako eta ez landa-inguruan ematen direnei buruz.

Mila biztanleko tasarik altuena Gipuzkoako lurraldean jaso zen (10,38). 2008an EAEn izandako jaiotza guztien % 14a atzerriko herritartasuna zuten emakumeek izan zituzten. Gipuzkoan, lurraldean jaiotakoen guztizkoaren % 12 izan ziren.

Bizi-itxaropenaren hazkundera: EAEn, bizi-itxaropena estatuko batez bestekoaren (81,1 urte) gainetik dago. Izan ere, emakumeen bizi-itxaropena 85 urtekoa da, eta gizonena 78,4 urtekoa (6,7 urteko aldea). Gipuzkoan, bizi-itxaropenaren bilakaera honelakoa izan da: emakumeen kasuan, 1975/76 tartean 76,1 urtekoa zen, eta 2005/06 tartean 84,6 urtekoa; gizonen kasuan, 69,7 eta 77,6 urtekoa, hurrenez hurren.

Immigrazioaren hazkundera: EAEn, 2009an atzerriko 132.865 pertsona zeuden erroldatuak. Horien % 48,1 emakumeak ziren, eta % 51,9 gizonak. 2008. urtea izan zen EAEn migrazio-tasa positiboa jaso zen ondoko ondoko bederatzigarren urtea. EAEn kokatutako atzerriko biztanleen gehiengoak 16tik 44 urtera bitarte kokatzen da, eta 45 urtetik aurrera, atzerriko pertsonen kopuruak behera egiten du. Gipuzkoan, 2010. urtean, guztizko biztanleriaren % 1,9 EBko biztanleak ziren, eta % 4,1 beste herrialde batzuetatik immigratutako biztanleak. 2008an zehazki, kanpora irten zirenak baino 3.655 pertsona gehiago iritsi ziren Gipuzkoara, baina tasa hori aurreko urtekoa baino % 13 txikiagoa zen.

4.2. Nork jasotzen ditu zainketak Gipuzkoan? Zainketen eskari potentziala

Pertsona guztiak kalteberak garela eta bizitzako hainbat momentutan zainketak behar ditugula kontuan hartzen badugu ere —horrela jaso dugu gure jarrera azaltzean—, atal honetan herri politikek zainketak behar dituztenen taldean biltzen dituzten kidegoen egoeran jarriko dugu gure arreta, hau da, adineko pertsonen egoeran, dibertsitate funtzionala dutenen egoeran eta haurren egoeran, betiere aintzat hartuta zainketa-premia intentsiboak edota espezializatuak izan ditzaketela, arreta berezia ematera behartuz.

Adineko pertsonen kasuan, EAEn egiaztatu dugunez, adin-talde handien banaketaren bilakaerak hazkunde bat ageri du adin helduenetan. 1981etik 2008ra bitarte, 65 urteko eta goragoko biztanleriaren zifra bikoiztu egin zen, % 9tik % 19ra igo zelarik. Askoz nabarmenagoa izan da

hori baino helduagoak direnen kopuruan izandako hazkundera. Izan ere, 85 urteko eta goragoko pertsonen kasuan, proportzioa 3,7rekin biderkatu da azken 28 urteotan, guztizkoaren % 2,4ra iritsi da. Gipuzkoako biztanleriaren zahartze-tasa EAE osoko tasaren (% 18,5) antzekoa da, eta estatukoaren eta Europakoaren gainetik kokatzen da (% 16,7 eta % 17, hurrenez hurren). Eustatek 2007an Gipuzkoarako egin zituen biztanleria-proiektzioek adierazi zuten zahartze-tasak pixkanaka handitzen jarraituko zuela, 2012an biztanleriaren % 20,6an kokatu arte. Era berean, Gipuzkoako 80 urtetik gorako biztanleria-tasa ere handia da. 2008an % 5,37 izan zen (65 urtetik gorako biztanleriaren % 28,8), eta 2009an % 5,57 (65 urtetik gorakoen % 29,36).

65 urtetik gorako biztanleriaren ehunekoak gora egiten duen aldi berean, **adingabeen** ehunekoak behera egin du EAEn. 2008an, etxebizitzaren % 16ak zeuzkan bere barruan 16 urtetik beherako gazteak; 13 urtetik beherako gazteak zituzten etxebizitzaren proportzioa % 19 zen; eta, 3 urtetik beherako haurrak zituztenen proportzioa % 7,9. Adingabeei dagokienez, udal-eroldaren azken eguneratzean emandako datuen arabera, 2007an 109.480 adingabe bizi ziren Gipuzkoan, hau da, guztizko biztanleriaren % 15,8, eta, horien barruan, % 37,2 0-5 urteko haurrak ziren, % 37,5 6-12 urteko neska-mutilak, eta % 25,4 13-17 urteko nerabeak.

Dibertsitate funtzionala duten pertsonak ezindu⁹ terminoarekin izendatzen dira estatistiketan, eta haiei dagokienez, egiaztatu dugu EAEn guztizkoaren hazkunde bat izan zela 2002. urtetik (% 8,0) 2007. urtera (% 8,4) bitarte. Datuak dituen azken urtea da hori. I. mailako ezintasuna duten pertsonak barnean hartuta, Gipuzkoako guztizko biztanleriaren % 4,36 mendekotasun-egoeran dago. Hazkunde hori sexuaren arabera aztertzen badugu, berehala ikusiko dugu gizonen kasuan behera egin zuela (% 8,5etik % 8,2ra) eta emakumeen kasuan, aldiz, puntu bat handitu zela (% 7,5etik % 8,5era). Era berean, hazkunderik nabarmenena emakume "langile ez kualifikatuen" artean gertatu zen, % 9,9tik % 11,5era igo baitzen.

Adinekoen, adingabeen eta dibertsitate funtzionala dutenen zainketa-eskariak EAE osoan eta estatuan estaltzen diren modu berean estaltzen

⁹ Eustaten arabera, ezintasun esaten zaio arazo kroniko edo larri baten ondorioz jarduera murrizteari. Jarduera-murriztearen eta ezintasunaren terminoak barnean hartzen ditu.

dira Gipuzkoan, hau da, hainbat estrategien bitartez, hala nola estrategia iraunkorren bitartez (lan-merkatuan lan egiteari uztea), aldi baterako estrategien bitartez (lan-utzialdien moduan), inguruneko estrategien bitartez (hala nola, aitona-amonen etxetik gertu bizitzea), zeharkako estrategien bitartez (adibidez: amatasuna atzeratzea), eta abar. Hala ere, hautatutako aukerek ez dute zergatik zaintzailearentzat onenak izan behar, ezta zaindutako pertsonentzat ere. Nolanahi ere, familia-sareak dira gehien erabiltzen diren baliabideak. Adinekoen eta dibertsitate funtzionala dutenen kasuan, zainketen antolakuntza, zereginen banaketa eta gauzatzeko gogoia konplexuagoa da, pertsona horiek pairatzen duten narriaduragatik. Are gehiago, zainketak emateko ardura emakumeek hartzen dute proportzio handi batean, haien generoari esleitu zaion paperagatik; besteekiko dedikazioan oinarritutako paperagatik. Xehetasun handiagoarekin ikus dezakegu etxebizitzetako zainketen atalean.

Ondorio gisa esan dezakezu Gipuzkoan gertatu diren demografia-aldaketek nahitaez aldaketak ekartzen dituztela zainketen edukian: adingabeen eskaria murriztu egiten da, baina adinekoen eta dibertsitate funtzionala dutenen eskariak gora egiten du (ziur asko, azken hori zahartzearekin lotuta dago). Hortaz, etxebizitzek osaera berri horri erantzun behar diote, egoera berri horiei... baita politikek ere.

4.3. Zainketen antolakuntza Euskadiko eta Gipuzkoako etxebizitzetan

2008an 794.387 etxebizitza erregistratu ziren guztira EAEn. Tipologiaren azterketak adierazten digu aurreko garaietan ezohikoak ziren familia-forma batzuen garrantzi erlatiboa handitu egin dela. Familien posmodernizazio-prozesuaren ondorioz, jada ez dago eragile guztiek zalantzarik gabe ideal gisa definitzen duten familiako bizitza-eredu bakar bat. Izan ere, prozesu horren ezaugarri nagusiak izan dira ezkontza kopurua murriztea, seme-alaba kopurua murriztea, biztanleria zahartzea, banantze kopurua handitzea, bikote berriak eratzea, seme-alabak familia-etxebizitzan geratzen diren denbora luzatzea, eta guraso bakarreko familiak ugaritzea. Hala ere, eraldaketa horiek gorabehera, familia gure sistemaren egituraren eta iraunkortzearen muinean dago oraindik. Are gehiago, geroz eta forma gehiago hartu ditu, baina ez dirudi oinarritzko izaera galdu duenik.

Zehazki, guraso bakarreko etxebizitzaren kopuruak gora egin du¹⁰. 2008an, etxebizitzaren guztizkoaren % 8,3 ziren. Profil oso feminizatua duten familiak dira, kasu guztien % 80an erreferentziako pertsona emakume bat baita. Datu garrantzitsua da hori, batez ere kontuan hartuta familietan erreferentziako pertsona gizona izateko joera orokorra dagoela, aurrerago ikusiko dugun bezala. Guraso bakarreko familien guztizkoaren % 40ak menpeko seme-alabak ditu. EAEko 16 urtetik beherako % 6 guraso bakarreko etxebizitzetan bizi da (% 93, banantze bat izan duten edo bikotekide bat hil egin den etxebizitzetan). Guraso bakarreko etxebizitzetan bizi diren 3 urtetik beherako haurren proportzioa % 3,3 da. Menpeko seme-alabarik ez duten eta banantze bat izan duten edo familiako kideren bat hil egin den 10etik 8 etxebizitzatan 65 urtetik gorako pertsona bat bizi da, eta, 10etik 3 etxebizitzatan, 80 urtetik gorako pertsona bat. Guraso bakarreko gainerako etxebizitzetan, 65 urtetik gorako pertsonen presentzia urria da (10 etxebizitzatik 2 inguru), eta gauza bera gertatzen da 80 urtetik gorako pertsonen kasuan (ez da iristen 10 unitatetik 1era). Era berean, aipagarria da seme-alaba burujabeak dituzten guraso bakarreko etxebizitzetan atzerriko biztanleen proportzioa % 63ra iristen dela.

Bizi-itxaropena luzatzearen ondorioz, ezkontza-bizitza luzatu egiten da eta guraso izan ondoko etxebizitzaren kopurua handitu egiten da; hau da, bikote heldu batek osatutako eta seme-alabak emantzipatu eta etxea utzitako etxebizitzak. Era berean, pertsona bakar bateko etxebizitzaren kopurua ere handitu egin da. Horiek, kasu askotan, emakume alargunek edo 70 urtetik gorako bananduek osatzen dituzte. Bestalde, familia-ibilgailurik gabeko pertsona anitzeko etxebizitzaren kopuruan hazkunde bat ikusten da. Elkarren arteko ahaidetasun-harremanik ez duten bi pertsonen edo gehiagok osatzen dituzte etxebizitza horiek, eta neurri handi batean immigrazioaren hazkundearen ondorioz sortu dira. Ahaidetasun-harremanik gabeko pertsonen osatutako etxebizitzetan bizi direnen % 39 atzerritarrak dira, eta bi familia-nukleok edo gehiagok osatutako etxebizitzetan bizi diren atzerritarren ehunekoa oso antzekoa da (% 32).

10 Guraso bakarreko familien artean biltzen dira guraso bakarrekoak (ezkondu gabeko nukleoa) eta ezkondu ondokoak (bikotekide bat hil egin den edo banantze bat izan duten familiak).

EAEko familien batez besteko tamaina 2,6 pertsonakoa zen 2009an. Argi dago beherakada nabarmena gertatu dela etxebizitza guztien batez besteko tamainan (ahaideak ez diren pertsona anitzeko etxebizitzaren kasuan izan ezik), eta horrek lotura oso estua dauka seme-alaben batez besteko kopuruan izandako murrizketarekin eta jaiotza-tasaren beherakadarekin. Izan ere, jaiotza-tasak 2001ean errekupeazio txiki bat izan zuen arren, ezin izan du gelditu familien batez besteko tamainaren murrizketa. Familia ugaririk¹¹ etxebizitzaren guztizkoaren % 5,6 ziren 1996an, eta 2008an, berriz, % 3. Azpimarratu beharra dago emandako familia ugariko tituluen 10etik 3ren kasuan, lehen titulua atzerriko nazionalitatea duten familiei eman zaiela.

Biztanleria zahartzearen ondorioz, 65 urtetik gorako eta 80 urteko pertsonen presentzia handitu egin da Euskadiko etxebizitzetan, eta erreferentziako pertsona 45 urtetik beherakoa den etxebizitzaren ehunekoak murriztu egin da. Aitzitik, 65 urtetik gorako erreferentziako pertsona duten etxebizitzaren ehunekoak gora egin du. Zehazki, bakarrik bizi diren pertsona gehienak (pertsona bakar bateko etxebizitzak) 65 urtetik gorakoak dira (% 55), eta % 22ak 80 urte baino gehiago ditu. 65 urtetik gorako biztanleriaren ehunekoak gora egin duen aldi berean, adingabeen ehunekoak behera egin du EAEn.

Migrazioaren fenomenoak eragin handia izan du atzerriar bat buru duten etxebizitzaren hazkunderan. Horren ildotik, adierazi beharra dago euskal etxebizitzaren % 6,4 atzerriar jaiotako pertsonen osatzen dituztela (10etik 8, Europar Batasunetik kanpoko estatuetan).

Etxebizitzetan erreferentziako pertsonatzat jotzen direnen datuak sexuaren arabera aztertzerakoan egiaztatu dugunez, familia gehienetan oraindik pentsatzen dute etxebizitzan gizon bat dagoenean hura dela erreferentziako pertsona. Oro har, emakumeak erreferentziako pertsonak dira gizon bat ez dagoenean bakarrik. Horren haritik, erreferentziako pertsona gisa emakume bat dutela adierazten duten etxebizitzak % 37 dira bakarrik. Hala ere, kontuan hartu behar da datu hori nagusiki ezkontza-oinarria duten familiekin dagoela lotuta. Izan ere, gainerako etxebizitzetan, ema-

11 Familia ugaritzat jotzen dira honako egoera hauetako batean 3 seme-alaba edo gehiago dituztenak: 21 urtetik beherako ezkongabeak, lanerako ezinduek, edo 25 urtetik beherako ikasleak.

kumeen protagonismoa antzekoa edo handiagoa da pertsona bakar bateko familietan (% 67) edo guraso bakarreko familietan, menpeko seme-alabekin¹² nahiz menpeko seme-alabarik gabe (bi kasuetan % 80 inguru da).

Denboraren erabilerak. Uztartzea eta erantzunkidetasuna etxebizitzetan: Adina alde batera utzita, euskal biztanleriaren % 6,4ak zainketaren bat behar du ohiko jarduerak egiteko, osasun-arazoengatik, ezintasun batengatik edo adinekoa izategatik. Horrenbestez, euskal etxebizitzaren % 15,7an osasun-arazoengatik (gaixotasuna, minusbaliotasuna, substantzien kontsumoa, adin handia, eta abar) arreta behar duen pertsonaren bat daukate. Etxebizitza horien ia erdia pertsona bakar batez edo seme-alaba emantzipatuak dituzten ezkontza-nukleo batez daude osatuak (% 25 eta % 22, hurrenez hurren); % 12,8 guraso bakarreko etxebizitzak dira.

2008ko Etxebizitzaren Inkestaren arabera, bizikidetzaren arazo handienak dituzten etxebizitzak dira honako hauek: menpeko seme-alabak dituzten ezkontza-oinarriko etxebizitzak (% 1,7), nukleo anitzekoak (% 1,6) eta guraso izan aurreko ezkontza-oinarriko etxebizitzak (% 1,5). Horietan aipatutako bizikidetzaren arazo nagusia etxeko zereginen banaketa ezberdina da (% 33,5).

Zaintzaileen bi heren baino gehiago 41-80 urteko emakumeak dira (zaintzaileen guztizkoaren % 81,5). 2010eko lehen seihilekoan, 81-90 urteko zaindutako pertsonak % 8 ziren, eta zaintzaileen guztizkoaren % 83,10 emazteak, amak edota alabak ziren. Guraso zaintzaileen gorakada bat gertatu da menpeko pertsona adingabea den Laguntza Pertsonaleko Prestazio Ekonomikoen (PEAP) hazkundearen ondorioz. Seme/alaba/suhi/errain zaintzaileen kopuruan beherakada txiki bat izan da, eta emazte edo senar zaintzaileen kopuruan gorakada bat.

Jarduera horiek egiten dituzten pertsonak ematen duten batez besteko denborari dagokionez, emakumeek gizonak baino ia ordu bate gehiago ematen dute egunero etxeko gauzak egiten. Izan ere, emakumeek batez beste 6 ordu eta 56 minutu ematen dute, eta gizonak, berriz, 6 ordu. Are

12 Menpeko seme-alabak dituztela esaten da 18 urtetik beherako seme-alabaren bat edo 18-29 urteko seme-alaba langaberen bat dagoenean, edo 29 urtetik gorako seme-alaba ezinduren bat dagoenean.

gehiago, aldeak nabarmenagoak dira zeregin motaren arabera. Ildo horretatik, denboraren erabilera sozialaren inkestaren arabera, emakumeek bi heren denbora gehiago ematen dute egunean janaria prestatzen, bikoitza baino gehiago garbiketarako egiten, eta ia bikoitza arropa zaintzen. Gizonek emakumeek baino denbora gehiago ematen dute egunean konponketa-lanetan (gizonek 25 minutu, eta emakumeek 16), eta aldea askoz nabarmenagoa da erdi-aisian, gizonek 2 ordu ematen baitute, eta emakumeek aldiz, ordu 1 eta erdi. Hala ere, aldea benetan nabarmena da kudeaketan arloan, gizonek ordu bate ematen baitute eta emakumeek 37 minutu.

Emakumeek gizonek baino denbora gehiago eskaintzen diote etxean pertsonak zaintzeari, jolasekin eta heziketarekin lotutako zereginak barne, jarduerarekin duten harremana alde batera utzirik, hau da, ez dio axola okupatuak diren, langabezian dauden edo erretirodunak diren. Gizonezkoek emakumezkoek baino batez besteko denbora handiagoa duteneko salbuespen bakarrak dira: langabetuen artean, aste egunetan, eta ikasleen artean, ostiral eta larunbatetan.

Zainketara dedikazio osoa duten pertsonen (merkatuan ez-aktibotzat jotzen direnak) gehiengoa emakumeak dira, argi eta garbi, eta ordaindu gabeko lan horretan jardun ohi diren gizon ez-aktiboak baino askoz gehiago dira. Urteen poderioz emakume kopuruak behera egin badu ere, eta gizonezkoenak gora egin badu ere, oraindik ere desberdintasun handia dago batzuen eta besteen artean.

Urtea	Merkatuarentzat ez-aktiboak diren emakumeak	Merkatuarentzat ez-aktiboak diren gizonak
2005	419,5	83,1
2006	429,2	78,4
2007	443,5	95,1
2008	439,5	92,5
2009	430,5	101,6
2010	415,3	106,5
2011	408,8	106,6

Oro har, biztanleria osoak gutxi gorabeherako gogobetetasuna du ordaindutako lana, laneko eta familiako bizitza eta bizitza pertsonala uztar-

tzeari dagokionez. Gutxien balioesten den alderdia bizitza pertsonalarena da, eta gehien balioesten dena ezkontideak edo bikotekideak etxeko lanei eskaintzen dien denbora da. Balioespen horretan, aipatzekoa da gizonak -8,0- eta emakumeek -5,6- bikotekideak etxeko lanei eskaintzen dien denborari ematen dioten puntuazioan dagoen alde handia.

Lurraldeka, Arabak du lekurik onena, eta gogobetetasun mailarik handiena du, 6,9 punturekin; Gipuzkoa lekurik txarrean dago, 6,0rekin; Bizkaia EAEko batez bestekoaren inguruan kokatzen da 6,2 punturekin.

Lan-utzialdiak edo lanaldi murrizketak eskatzeak lanean mailaz igotzea galarazi dezakeenaren beldurrak antzeko eragina du gizon eta emakumeengan, nahiz eta nabariago ageri gazteen artean. Dena den, amatasunak ezberdintasunak eragin ditzake, mailaz igotzeari dagokionez, 5 emakume okupatutik batentzat; gizonen kasuan, aldiz, % 6,4ak soilik deritzo aitatasunak nabari eragin diezaiokeela. Hala eta guztiz ere, zazpi gizon okupatutik batek aitatasun baimena eskatzeak ondorio oso negatiboak ekarriko litziokeela uste du.

EAEko biztanleria okupatuak, enpresa edo erakundearen baitan, ibilbide profesionalaren gainean antzematen diren kalteei ematen dien batez besteko puntuazioa 10etik 2,3 puntukoa da. Biztanleria okupatuak lanean mailaz igotzeko orduan eragin handiena lukeen neurria lan-utzialdiak edo familiagatik baimenak eskatzea litzateke, 3,1eko puntuazioarekin.

Lurraldeka, Gipuzkoan dago zailtasun mailarik handiena, 2,9 punturekin, eta Araban dago Erkidegoko mailarik txikiena, 2,0 punturekin.

Etxeko zainketen antolamenduari dagokionez, zenbait ondorio atera ditzakegu Gipuzkoako Foru Aldunditik abiarazten diren herri politikentzako lagungarri izan daitezen:

- Zainketen politikek euskal eta gipuzkoar gizartean dauden etxeen aniztasunari erantzun behar diote, etxe nuklearrei soilik zuzenduak izan beharrean (horrela egin baita orain arte).
- Badira etxe batzuk besteek baino zailtasun handiagoak dituztenak. Horiek zeintzuk diren jakin beharko genuke (esaterako, bakarrik bizi diren adineko emakumeak? Ama bakarrekoak?) eta horien zainketa beharrei erantzun beharko genieke.

- Etxe batzuek, gauzak zail daudenean, "komunean jartzearen" alde egiten dutela lotuta daudela pentsa dezakegu: familiakoak ez diren hainbat pertsonaz osatutakoa, edo hedatutakoa... Baliabide ekonomikoak partekatzeaz gainera, etxe horien zainketak ere partekatuko al dira?

4.4. Etxeko enplegua

Eustatek egindako lau urtean behingo azterlanean (azkena 2007koa da) datu kezkarriak ikus ditzakegu etxeko enpleguaren eta zainketen sektorearen egoerari buruz, zeregin horien aitortza eskasa (hutsaren parekoa ez bada) azaltzen dela. Inkesta hori 2008ko krisialdia baino lehen egin zela aintzat hartzen badugu, gaur egun egoera okerragoa izan daitekeela ondoriozta dezakegu. Enplegu mota horrekiko azaltzen den interes eskasaren eta aitortza eskasaren erakusgarri da Etxeko Langileen Bizkaiko Elkartek (ATH-ELE) egindako salaketen artean dagoena: Eustatek ez duela barne hartzen etxeko enpleguaren maila, jarduera-adarraren araberako establezimendu eta enpleguei buruzko urteko inkestan. Hala ere, ikusi dugunez, lau urtean behingo inkestan barne hartzen du, behar adina ez bada ere.

EAEen etxeko enpleguan emakume gehiegi daude, emakumeen bosgarren lanbidea da, merkataritzaren, ostalaritzaren, hezkuntzaren eta osasungintzaren atzetik. Pertsona migratzaileak, emakumeak bereziki, merkaturatzeko sektore nagusia da, gainera. Izan ere, Europar Batasunetik kanpoko emakume etorkinen proportzioa % 25 ingurukoa da. Soldata-baldintzak oso ezegonkorak dira, EAEko soldaten batez bestekoaren % 44an kokatuz (sektoreko batez bestekoa hilabeteko 570 koa da) eta sektoreko langileen % 82ak ez du lanbide arteko gutxieneko soldata jasotzen.

Estatu mailan gertatzen den bezala, EAEko etxeko enpleguarekin lotutako eskariak etxeko lanaren araubidearen erreforman aitortutako lan-eskubideak betetzearekin dute zerikusia, eta langileen lan-eskubideak hedatzeko lan egiten jarraitzea proposatzen da, sektorea gainerako sektoreekin erabat berdindu arte.

4.5. Zainketa kate globalak

Azken urteotan nabarmen egin du gora EAERako migrazioak. Biztanleria atzerritarrak lurralde historiko bakoitzean egiten duen ekarpena lurraldeko

bakoitzeko enplegu-txokoen arabera da, hein handi batean. Lurralde bakoitzeko lan-beharren arabera, etorkinak leku batean edo bestean finkatu dira. Interesgarria da hiru euskal probintzian zenbait desberdintasun daudela aipatzea, eta horiek herritartasun batzuk, adin eta sexu aldagaiekin, lurralde batean erabakigarriak izatea, eta ez beste batean: Araba nekazaritzarekin eta Gipuzkoa eta Bizkaia etxeko enpleguaren sektorearekin nagusiki.

Lege-bizilekua duten biztanle atzerritarren artean, udal-eroldako datuen arabera, nolabaiteko simetria dago emakume (% 48,8) eta gizonen artean (% 51,6), eremu geografikoei so eginez gero, oreka hori desagertzen bada ere. Latinoamerikako herrialdeen kasuan, etorkin gehienak emakumeak dira, nahiz eta badauden sexuaren arabera aldeak herrialde batzuen eta besteen artean. Hori horrela Ekuadorreko (% 53,1) biztanleria feminizatuagoa da, baina oreka mantentzen du; Paraguairen kasuan, aldiz, migrazioa duela gutxi hasi zen eta feminizazio tasa altua du (% 71,1).

Gizarte Segurantzako datuei so eginez gero, Gizarte Segurantzaren afiliatutako 49.412 atzerritarretik % 58,3 gizonak dira eta % 41,7 emakumeak. Datu horiek eta eroldakoak alderatzen baditugu, ikus dezakegu emakumeek zama txikiagoa dutela Gizarte Segurantzaren afiliatutako pertsonen artean. Hori, batez ere, bi faktore direla medio gertatzen da. Lehenik eta behin, merkataritzako jarduera-tasa eta okupazio-tasa handiagoa da gizonen artean emakumeen artean baino, bertakoen zein atzerritarren kidegoetan. Horretaz gainera, emakume etorkinen lanbide-txokoak ez daude hain araututa edo formalizatuta, bestelako jarduera ekonomikoetako sektoreekin alderatzen baditugu. Kasu honetan, garrantzitsua da kontraturik gabe etxeko enpleguan lan egiten duten emakumeen eragina eta, horren ondorioz, enplegua izan arren, ezin dira azaldu Gizarte Segurantzako afiliazio-estatistiketan, egoitza baimena izan edo ez izan alde batera utzirik. Aldi berean, kontraturik ez dutenez, zailtasun handiagoak dituzte haien egoera administratiboa erregularizatzeko. Eta, horrela, gorpil zoroa gertatzen da: laneko formaltasun ezaren eta irregulartasun administratiboaren artekoa. Funtsezkoa da behatzea zer nolako eragina izango duen araubide orokorrera igarotzeak, horrek formaltasun ezatik ateratzen baititu.

Gipuzkoako emakume migratzaileen profilari dagokionez, Oreka Sarea SLk 2011n egindako *Donostian mendekotasun-egoeran dauden pertsonen*

emandako zainketei buruzko Diagnosian, emakume migratzaile langile askok erdi-mailako prestakuntza dute, aurretik lan-eskarmentua bazuten, eta emigratzea erabakitzen dute haien sorterrietan dauden zailtasun ekonomiek bultzatuta. Haien egoera konplexua izan ohi da, are gehiago, egoera administratibo irregularrean daudenean. Kontraturik gabe eta baldintza ezegonkorretan egindako lanak oso ohikoak dira eta, emakume horietako asko, zerbitzuetan eta, zehatzago, etxeko lanean biltzen dira. Emakume etorkinak diren etxeko langile eta zaintzaile kopuruak nabarmen egin du gora azken urteotan. Lan-sektore hori bereziki gogorra da emakumeentzat, haien jatorria alde batera utziz, Gizarte Segurantzako Erregimen Berezian erreforma egin bada ere, oraindik ere aplikatzen dena bermatzeko lan handia baitago egiteke; ordainsariak txikiak izan ohi dira eta ordutegi luze eta aldakorrei aurre egin ahal izateko libre egotea eskatzen da. Emakume etorkinen kasuan, asko *barneko langile* gisa jarduten dira; horiek, orokorrean, babesgabetasun handiagoko egoeran izan ohi dira.

Zailtasunak izan ditugu etxeko enpleguaren sektorean Gipuzkoan jarduten diren emakumeen zainketen antolamenduaren errealitatea azaltzen duten datuak aurkitzeko garaian. Ez dakigu seme-alabarik ote duten haien sorterrian edo zein itxura duten haien etxeek migratzaile gisa, diru-bidalaketak zainketa zerbitzuak ordaintzeko erabiltzen diren, eta abar. Hori dela eta, egoera hori modu zehatzago batean azal dezaket, eta estrapolatzeko aukera txikiagoa ematen duten azterlan kualitatibo eta murriztuagoak aipatzen ditugu. Hori horrela, egiazta dezakegu, sarritan, pertsona migratzaileek ez dutela familia-zamarik hemen.

Ohikoena da etxeko langile migratzaileek haien sorterrietan izatea haien ardurapeko pertsonak; horiei hemendik laguntzen saiatzen dira, zenbaitetan modu erregularrean (hilaro dirua bidaliz, hemengo egoera nolakoa den alde batera utziz), eta beste zenbaitetan, modu esporadikoan, haiekiko sentitzen duten betebeharraren arabera. Kasu askotan, emakume horiek seme-alabak utzi dituzte atzean. Badira ere adin txikiko anai eta ahizpen ardura duten emakumeak, edota dagoeneko lan egiterik ez duten gurasoak haien ardurapean dituztenak. Ohikoena da langileen ama edo ahizpek hartzea sorterrian geratu den familiaren zainketaren ardura, eta heltzen den dirua ere kudeatu behar izatea.

Bidaltzen den diruari dagokionez, eskuarki, familien oinarrizko gastuak ordaintzeko erabiltzen da, hala nola, elikadura, etxea eta jantziak ordaintzeko. Halaber, diru bidalketak, sarritan, gizarte babeserako sistema publikoa ez egoteagatik bidaltzen dira, eta izan liteke, jatorrian langabezia, gaixotasun, mendekotasun, pobrezia eta beste hainbat egoerekin lotutako beharrei erantzutea, edo zenbait gizarte-eskubidez baliatzeko bidea izatea, hala nola osasunerako eta hezkuntzarako eskubideez baliatzekoa. Hori horrela, etxeko taldearen zaintza eta familia-sarea funtsezko elementua dira, izan ere, horien inguruan zehazten baita zenbat diru eta zenbat maiztasunez bidali beharko den. Migrazioa familia-taldeari mantenua emateko gertatzen denean, diru-bidalketak erregularragoak eta egonkorragoak izan ohi dira, nahiz eta sarritan guraso migratzaileek heltzen direnako herrialdean dituzten bizi-baldintzek mugatu egiten dituzten etxekoak mantentzeko gaitasuna. Edo alderantziz: gerta liteke dirua bidaltzen jarraitu ahal izateko, heltzen direnako herrialdean nekez bizitzea (soiltasun handiz bizitzea, barneko langile gisa jarraitzea aurrezteko estrategia gisa...). "Sakrifizio" hori ohikoagoa da migratzaileen artean haien artean baino.

Emakumeek, zehazki, barneko langile gisa bizilekua izatea eta enplegu-aniztasuna bezalako estrategiak baliatzen dituzte ekonomia-hornitzaile gisa duten erantzukizuna bete ahal izateko. Genero desberdintasunak ikus ditzakegu ere betetzen den rolaren arabera: gizonak *diru* hornitzaileen rola betetzen dute (ez ekonomia-hornitzaileena). Emakumeak etxearen arduradunak izan ohi dira eta beharrezkoa den guztia egiten dute: diru-bidalketak egitea, baina baita urrunetik zainketak kudeatzea ere. Azken zati horretatik libratu egiten dira gizonak eta lehenengoa bete egiten dute, modu ez hain erregularrean bada ere. Beraz, emakumeek gizonak baino konpromiso egonkorragoa eta zabalagoa dutela ikus dezakegu, eta emakumeak sorterritik joaten direnean "sekulakoa" izaten dela, haien baitira etxearen pilarea, zentzurik zabalenean. Aldiz, gizonak direnean joaten direnean, haiek zainketak eusten ez zituztenez, dirua bidaltzen badute, ez da inolako arazorik sortzen, zainketez arduratzen jarraituko duten emakumeak sorterrian geratu baitira.

Diru-bidalketak hartzeko erduei dagokienez, diru-bidalketen hartzaileak etxeen ardurarekin geratzen direnak izan ohi dira, eta horrek ere agerian uzten ditu generoaren arabeko hainbat desberdintasun. Gizona

denean familiaren migrazio-proiektuari ekiten diona, emaztea eta ama izan ohi da sorterrian etxearen arduradun geratzen dena, eta bera izan ohi da diru-bidalketen hartzaile nagusia. Aldiz, emakumea denean migrazio-proiektuari ekiten diona, bakarrik edo haren bikotekidearekin batera, familia-sare zabaleko beste emakume bat izan ohi da zeregin hori bere gain hartzen duena, etxea mantentzeko eta bertako kideen ongizatea hobetzeko diru-sarreraren hartzaile bihurtuz. Hemen, genero ikuspegia baliagarria da hau ulertzeko: emakumeek tradizionalki zaintza-zereginak bere gain hartu dituztenez, emakume horiek migratzen dutenean, horrek lagundu egiten diola beste emakume batzuek hartzeari etxe osoaren ongizaterako baliabide ekonomikoen probetxu ona bermatzeko ardura. Emakumeak protagonistak dira horretan, eta horrek adierazten du eredu feminizatua dagoela diru-bidalketen kudeaketa transnazionalen, eta sorterriaren eta migratzaileak heltzen direneko herriaren arteko baliabide ekonomikoen kudeaketa koordinatuan.

4.6. Mendekotasuna artatzeko eta uztartzeko/ erantzukidetasunerako zerbitzu publikoak

4.6.1. Mendekotasun Legea eta hori benetan nola garatzen den

Gipuzkoako Lurraldean oinarrizko gizarte zerbitzuen ezarpena 80ko hamarkadan hedatu zen. Egun, Lurraldeko udalerrri guztiek dute, gutxienez, arretarako oinarrizko unitate bat (gizarte-langilea, administrazio-langilea) udaletan edo mankomunitate bidezko elkarteetan. Biztanleriaren banaketa dela eta, egitura oso bestelakoa da landa-eremuetan eta hirietan (Donostia, Irun).

39/2006 Legeak, abenduaren 14koak, Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak Zaintzeari buruzkoak, autonomia pertsonala sustatzeko eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeko oinarrizko baldintzak arautzen ditu, horretako, Autonomiarako eta Mendekotasunaren Arretarako Sistema (SAAD) sortuz. Bertan gai honetan eskumenak dituzten Herri Administrazio guztiek parte hartzen dute, elkarlana eginez. Helburu nagusia mendekotasun-egoeran dauden pertsonen eta horien senideen bizi-kalitatea hobetzea da, adinekoak direla edo dibertsitate funtzionala duten pertsonak direla. Haien sendian ahalik eta denbora gehienez egoteko beharrezkoak diren baliabideak eskaintzen

dira horretarako eta, hori posible ez balitz, egoitza-aukera egoki baterako sarbidea eskaintzen da.

Mendekotasun Legea Gipuzkoako Lurralde Historikoan 2007an indarrean sartu arren, prestazio ekonomikoak ez ziren 2008ra arte izapidetzen hasi. 2012ko apirilaren 1ean, IMSERSOren datuen arabera, 41.190 pertsona (biztanleriaren % 1,89) dira EAEn prestazioak jasotzen ari direnak. Egun horretara arte, 80.364 eskari erregistratu ziren, EAeko biztanleriaren % 3a izan zen eskaria aurkeztu zuena, beraz. Horietatik 76.907k (biztanleriaren % 3,52) jaso zuten aldeko irizpena. Eskatzaileen profilari dagokionez, eta sexu eta adinaren arabera hartzaileei dagokienez, ez ditugu autonomia erkidegoen arabera datuak. Estatu mailako datuen arabera, eskatzaileen % 65 eta hartzaileen % 67 emakumeak ziren (54 urtera arteko emakumeen kopurua txikiagoa da; adin horretatik aurrera emakume kopuruak gora egiten du, 65 urtetik aurrera bereziki, gizonetzkoen bikoitza edo hirukoitza izatera heldu arte). Estatu mailako eskatzaileen adinari dagokionez, % 50ak 80 urtetik gora du.

Mendekotasun Legeaz geroztik, prestazio ekonomikoen izapidetzetan gertatutako atzerapenek eragin txikiagoa izan zuten Gipuzkoako Lurraldean, dagoeneko mugatuagoak ziren, baina baliokideak ziren prestazioak bazeudelako:

- **Familia Ingurunean Zaintzeko Prestazio Ekonomikoa (PECE)**, Gipuzkoan 1996tik Sendian Programan zegoen prestazio ekonomikoa ordezkatzeko duena. Programa hori (egun existitzen da) etxean bizi diren eta mendekotasuna duten pertsonen zaintzaileei laguntza emateko bideratuta dago, horretarako laguntzarako baliabideak eskainiz (egoitza eta eguneko zentroa asteburuetan, prestakuntza, laguntza-taldeak eta laguntza psikologikoa).
- **Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoa (PEAP)**: 2004an Bizitza Independentea izeneko programa abiarazi zen, ezintasuna zuten pertsonen zuzendua. Bertan, egoeraren analisi integrala egin zen, zentro batetik ateratzeko edo gurasoen etxetik irteteko lagungarria zatekeen ekarpena finkatu ahal izateko (ostatu gastuak, garraioa, laguntzaileak...). Mendekotasunerako prestazioak ez du programa hori ordezkatu, bi arrazoi nagusi direla medio:

- mendekotasun-egoeran dauden pertsonak ez dute mendekotasunagatik zenbateko ekonomiko bat jasotzeko eskubidea, gehienek zenbatekoa murrizten duten bestelako zerbitzuak dituztelako (baliaezintasun handiagatik pentsioa, hirugarren bati laguntzeko osagarriak, eguneko zentroa...); sarritan zenbateko hori 0 koa izan daiteke.
- Helburua ez da kopuru ekonomikoa emate hutsa, baizik eta prozesuan laguntza eskaintzea, autonomia eta independentzia bermatu ahal izateko.
- **Zerbitzuari lotutako Prestazio Ekonomikoa (PEVS):** 2005etik aurrera, egoitzen eskaintza publiko eskasari erantzun bat emateko helburuz, lurraldeko bi eskualdetan (Bidasoaldea eta Oarsoaldea) egoitza pribatutan sartzeko laguntza ekonomikoak eskaintzen ziren. Laguntzen kopurua handiagoa da eta, hori dela eta, zenbait kasutan mantendu egin dira.

2010eko ekainaren 30an, prestazio bakoitzak zuen hartzaile kopurua hauxe zen: PECE:8.066; PEAP: 960 eta PEVS: 121.

2008ko abenduaren 5ean, Eusko Legebiltzarrak Euskadiko Gizarte Zerbitzuen Legea onartu zuen, 1996ko legea indargabetzen duena. Legearen helburu nagusia Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema sortzea da, Ongizate Estatutaren 4. pilare gisa, mendekotasunaren arreta bertan txertatuz. Benetan, Lege berriaren helburua Euskal Herri osoan printzipio komunetan oinarritua egongo den laguntza-sarea eratzea da, katalogo ofizialean jasotako prestazioak hiru lurraldeetan baldintza berberetan eskaintze aldera. Helburu hori, oraindik, ez da betetzen. Legearen testuak Euskadiko errealitatera ekartzen ditu Estatuko mendekotasun Legearen xedapen nagusiak.

Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokionez, mendekotasunerako eskaintzen diren zerbitzu nagusiak jarraian aipatzen direnak dira:

- **Egoitzarako alternatibak:** Mendekotasuna duten pertsonentzako egoitzen sarean sektoreko erakundeek berariazko elkarlana dute, haien hitzarmen, finantzaketa eta foru-plangintzaren arabera kudeatzeko.
- **Etxeko laguntza:**

- Eguneko Zentroak. Eguneko arreta banako zainketa pertsonalekin, langileak eta programa bereziak dituen egokitutako zentroan. Asteko zazpi egunak eskaintzen dira.
 - Aldi baterako egonaldiak. Iraupen txikiko egonaldiak egoitzatan, hilabete bat edo bi, eta asteburuak; zaintzaileak atsedean har dezan edo egoera bereziren bat dagoenean.
 - Urrutiko laguntza. Pertsona etengabeko harremanean dago larrialdiak koordinatzeko zentroarekin, horretarako telefono bidezko gailu bat erabilia.
 - Sendian Programa. Zaintzaileentzako prestakuntza ikastaroak eta laguntza psikologikoa, sendiak mendekotasuna duen pertsonari ematen dion guztia orekatzeko.
 - Laguntza teknikoak. Ingurunea egokitzea, mugikortasunerako eta irisgarritasunerako laguntzak, horretarako lanak eginez eta zaintzailearen baldintzak hobetzeko ekipamendua eskainiz.
 - Mendekotasuna duten pertsonentzat eta haien senideentzako egokitutako opor-programak.
 - Bono-taxi zerbitzua.
- **Laguntza planak:** Gizarte zerbitzuei dagokienez, Lurraldean azpiegitura egokia izatea ahalbidetzen dute, aurkitu diren beharrekin bat etorriko dena, eskualdean banatzeko erari dagokionez, eta dauden zentroetan indarrean dagoen araudia betetzeari dagokionez. Plan hauei esker, irabazi asmorik gabeko zenbait erakundek, eta Saileko arreta arloen baitan, ordezkaturako kidegoen aldeko elkarte-jarduera gara dezakete.

4.6.2. Uztartze/erantzunkidetasunerako neurriak

Langilearen Familia- eta Lan-Bizitza Uztartzeko Legea (39/1999 Legea) izan da, urteetan zehar, Espainiar Estatuan egon den araudi tresna nagusia, familiako eta laneko erantzukizunak bateragarri izan daitezela laguntzeko helburua izan duena. Euskal Autonomia Erkidegoaren baitan, 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa, araudi tresna garrantzitsua izan da. Legearen VI. atalean, "Bizitza Pertsonala, Familia eta Lana Uztartzea"ri buruzkoan, 47 eta 49. artikuluan hainbat gairi heltzen die.

Legean herri administrazio euskaldunek uztartzea errazteko duten konpromisoa jasotzen da, horretarako, etxeko lanetan eta zainketetan gizonen erantzunkidetasuna edukitzea, laguntza ekonomikoak eta neurri fiskalak eratzea eta, azkenik, behar pertsonalen eta familiako beharren arabera lanaren berregituraketa sustatuz.

Aipatzekoa da ere "gizarte antolamendu erantzunkidea", bi programa lehenetsita dituelarik, bata erantzunkidetasunari eta denboraren erabilera berriei buruzkoa, eta bestea, uztartze erantzunkideari buruzkoa, IV. Legegintzaldian zehar garatzeko asmoz, 2010eko apirilean onartutako **EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako V. Planaren** ardatz nagusietako bat dena.

Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeari buruz Eustatek 2010ean egindako inkestaren arabera, etxeei buruzko atalean esan bezala, Gipuzkoak EAEko gogobetetasun-mailarik txikiena du, 6,0 batekin; Bizkaiak 6,2 puntu ditu eta Arabak 6,9. Gipuzkoan biztanleria okupatuak ordaindutako lana, norberaren bizitza eta familiakoa uztartzeko duen batez besteko zailtasun maila 10etik 3,8koa da. 10ak uztartzea ezinezkoa dela esan nahiko luke. EAEko batez bestekoa 3,3 puntukoa da.


Biztanleria okupatuarentzat uztartzeko zailtasun handiena duen elementua mendekotasuna duten pertsonen zaintza da (4,6 puntu) eta, horren atzetik, adin txikiko seme-alaben zaintza legoke, 4 punturekin. Seme-alaben zaintzak zailtasun handiagoa du gizonentzat emakumeentzat baino (4,2 eta 3,8, hurrenez hurren).

Uztartzeak eragindako kalte potentzialen artean, enplegua duten lau pertsonatik batek uste du, familia arrazoiak direla medio, lan-utzialdia edo lanaldi murrizketa eskatzeak eragin larria izango lukeela haien ibilbide profesionalean. Beldurrak antzeko eragina du gizon eta emakumeengan, baina nabariagoa da gazteen artean. Dena den, amatasunak ezberdintasunak eragin ditzake, mailaz igotzeari dagokionez, bost emakumetik baten iritziz; gizonen kasuan, aldiz, % 6,4ak soilik deritzo aitatasunak nabari eragin diezaiokeela. Hala eta guztiz ere, zazpi gizonetik batek aitatasun baimena eskatzeak ondorio oso negatiboak ekarriko lizkiokeela uste du. Zentzu horretan, Gipuzkoan dago kalte mailarik txikiena, 1,9 punturekin.

5. II. BERDINTASUN PLANERAKO IRADOKITZEN DITUGUN ESKU-HARTZE ESTRATEGIAK

Zainketarako eskubidea, argudiatu dugun bezala, gizarte eta ekonomia-
ren egitura orientatzen duen printzipio bat bezala ikusi behar da. Hemen
galdera bat sortzen da: nola gurutzatzen dira zainketak beste politikekin?
(adibidez, etxebizitza politikarekin: zein etxebizitza mota sustatzen den,
nuklearrak, zeinetan zainketa beti banakoa izango den, edo eraikinetan
gune komunak egotea sustatzen den). Lehen maila horretan, gakoa litza-
teke une oro gogoan izatea zainketak, Gipuzkoako Foru Aldundiko sail guz-
tietan, Aldundi gisa bere gain hartzea zainketaren konponketak errazteko
zeharkako helburua, horiek oztopatu edo, besterik gabe, norbaitek lekuren
batean irtenbidea emango diela ziurtzat eman beharrean.

Lehen maila horretatik abiatuta, zainketak jasotzeak zein eskubide
zehatz dakartzan jakin behar da, ordaindu gabeko horniduran, eta zainketa
sektoreko enpleguan (bigarren maila) eta, azkenik, horiek zein neurriren
bitartez gauza daitezkeen eztabaidatu behar da (hirugarren maila).



Iturria: ikus oin-oharra¹³

13 Orozco (2010), *Cadenas globales de cuidados: ¿qué derechos para un régimen global de cuidados justo?*, UN-INSTRAW-UN WOMEN argitalpenean oinarrituz egindako koa-droa. Webgune honetan eskura daiteke: <http://www.inmujer.es/documentacion/Documentos/DE0481.pdf> *global de cuidados justo?*, UN-INSTRAW-UN WOMEN. Disponible en <http://www.inmujer.es/documentacion/Documentos/DE0481.pdf>

5.1. Zainketarako eskubidearen gaineko eztabaida demokratikoa sustatzea

Zainketarako eskubidea antolatu ahal izateko hartu behar diren politika zehatzak erabakitze aldera, aurretik eztabaida demokratiko bat egon behar dela uste dugu, bertan zainketa harremanen protagonista diren subjektuek eztabaida gidatu dutela. Eztabaidan laguntzeko hainbat irizpide/gida aipa ditzakegu:

- 1/ Zainketarako eskubidea, helburua izan behar da:** Zainketarako eskubidea helburu gisa ezartzeak, bizitzako dimentsio hori ongizatearen eta biztanleriaren oinarritzko elementu gisa aitortzea dakar. Helburu bat du bere horretan, eta horrexegatik, ezartzen diren neurriak ezin dira beste helburuak lortzeko tresna gisa antolatu. Hori gaurkotasunezkoa den beste diskurtso baten oso bestelakoa da, hau da, zainketak giza kapitalen inbertitzeko modu gisa eta, horrela, produktibotasuna eta garapena, merkataritza-hedapen gisa ulertuta, hobetzea dion diskurtsoaren oso bestelakoa da.
- 2/ Zainketarako eskubidea eta beste eskubideak bereiztea:** Zainketarako eskubidea, orientatzeko printzipio den heinean, beste hainbat eskubide sozialekin gurutzatzen bada ere, berau antolatzen duten neurri zehatzek zainketarako eskubidea eta bestelako eskubideak (hala nola, hezkuntzarako edo osasunerako eskubidea) bereiz daitezten ahalbidetu behar du. Eskubide horien arteko mugak ezartzea lotuta dago zainketa lanak eta bestelako gaitasun profesionalak bereiztearekin. Bada joera bat, zeinetan profesionalizazioak (zereginak, lan-baldintzak eta beharrezkoa den prestakuntza argi identifikatzea bezala ulertuta) "zainketa" generikoaren jardueraren ikusmoldea gaitutako lanbideengatik ordezkatzeko den (adibidez, hezkuntza sistemak, berez, hezkuntzazkoa den helburu bat betetzen duela ulertzen da, ez zaintzakoa). Profesionalizatzeko joerak duen arriskua da, besterik adierazi ezean, zainketak balio anitzekoak diren, eta prestakuntzarik eskatzen ez duten zereginekin identifika ditzakeela, berriz zeregin horien naturalizazioan eroriz.
- 3/ Dimentsio guztien arteko atzeraelikadura positiborantz:** Zainketarako eskubideak hainbat dimentsio hartzen ditu barne, eta berau eratzen duten alderdi anitzak independenteak dira elkarren artean: inork zainke-

tak jasotzen baditu, bada zainketak ematen dituen beste inor; zaintzen duenak zainketak behar ditu; etxeko enpleguan dauden lan-baldintza ezberdinek, familia zaintzeko gaitasun desberdinak daudela esan nahi dute; eta abar. Harreman hori erraz bihur daiteke kontraesankor. Kontraesan ohikoenen artean dago zainketak jasotzeko eskubidearen eta ez zaintzeko eskubidearen arteko talka. Horren adibide dira etxetik kanpoko zerbitzu alternatiboekin batera ez datozen zaintzeko denbora edo diru prestazioak, izan ere, zainketa bermatzen baitute, baina zeregin hori familiari inposatuz. Zainketak jasotzearen eta ematearen arteko kontraesana, ordaindutako lanetan ere sor daiteke. Adibidez, zenbat eta privatizatuago eta merkantilizatuago egon zerbitzuak (etxeko arreta, hartzaindegia, egoitzak...), orduan eta gehiago sustatzen da enplegu ez-egonkorra. Orobat, zainketa zerbitzuak sektorerik pobreenetara hedatzen direnean, sarritan, boluntarioaren/informalaren mugetako lana ustiatuz egiten da: horixe gertatzen da PECEREkin (Familia ingurunean zaintza ez profesionalak emateko prestazioa). Beste ohiko kontraesan batek aspalditik egiten den galdera honekin du zerikusia: nork zaintzen ditu zaintzaileak?

Zainketarako eskubide multidimentsionalaren alderdien arteko harremana atzeraelikadura positibo bilaka daiteke¹⁴, ekidinezina den harremana abiapuntutzat hartuz, eta elkar indartzeko baliagarria izango den prozesua bilatuz, bata bestearen atzetik ukatu beharrean. Horretarako beharrezkoa da zainketak ematen dituen pertsonaren eta jasotzen dituen pertsonaren arteko bereizketa garbi bat ez dagoela onartzea; zainketak elkar mendekotasunez gertatzen direla onartu behar da, gizarte-harremanetan, eta inork ezin dituela alderdi bakarreko eskubideak soilik baliatu, baizik eta bietakoak baliatzen dituela aldi berean.

Zainketen ikuspegi horrekin bat etorritik, II. Planerako proposatzen ditugun estrategiek jarraian aipatzen diren elementuetan jartzen dute arreta:

14 Zenbat eta hartzaindegi eta haur eskola gehiago egon, egingarriagoa izango da etxean doan ez zaintzeko aukera. Zerbitzu horiek kontratazio bidezko zerbitzu publikoekin eskaintzen badira, lan-baldintza duinekin, laneko hobekuntza horrek eskaintzen den zainketa kalitate handiagokoa izatea eragingo luke. Zainketen sektorean lan eskubideak aitortzea, edo familiako zaintzarako baldintza duinak bermatzea, berez, langileen zaintza artatzeko modu bat da.

- 1/ Gipuzkoako gizarteko hainbat eremuetako (hezkuntza, osasuna, elkarteak, politika, lan mundua...) eragileen artean zainketen inguruko eztabaidarako guneak erraztea. Funtsezkoa da eztabaidetan esku hartzen duten subjektuek parte hartzea: adingabeak, helduak, dibertsitate funtzionala duten pertsonak, emakumeak, gizonak eta trans pertsonak, elkarteak, herri administrazioak, akademiak, eta abar. Eztabaida horiei elkar mendekotasuna, autonomia eta zainketarako eskubidea berreskuratzen dituen ikuspegi feministatik ekin beharko litzaieke. Eta bigarren maila batean geratu ohi diren funtsezko heldu ekin beharko liekete: nork bere burua zaintzea, nola zainduak izan nahi dugun eta biziera onaren esparrua abiapuntutzat hartuta heriotza duina izateko eskubidea, etxe mota berriak eta etxeak gatazka gune gisa, ez soilik armonia gune gisa, feminitatearen eta maskulinitatearen eraikuntza, autonomia/mendekotasunaren arteko eztabaida, bere burua besteei ematen dien emakumearen irudi katolikoa, laikotasuna, eta abar.
- 2/ Zainketen gaia hezkuntza curriculumean txertatzea, ikuspegi feminista eraldatzaile batetik, lehen hezkuntzan, bigarren hezkuntzan eta unibertsitatean (soziologia, teologia, filosofia, psikologia, historia, osasun, hezkuntza... fakultateetan).
- 3/ Zainketen gaia agenda politikoan sartzeari buruzko txertatzea. Izan ere, beti daude txertatuta, baina ezkutuan geratzen direnez (jakintzat ematen dira), gatazkak, tentsioak, arazoak, eta abar *pribatua* den horren linboan geratzen dira. Horrexegatik da beharrezkoa berriaz jorratzea eta herri politikaren ikuspegi osoan zeharkakotasunez txertatzea.
- 4/ Sormenarekin lotutako formatuak (ikus-entzunezkoak, adibidez) erabiltzea, zinema, telebista eta Internet bezalako euskarriak erabiltzea gune berrietan sartzeko eta beste subjektuengana heltzeko, zainketen inguruko eztabaida xaxatuz eta egungo genero-irudiarekiko haustura sustatuz.

5.2. Neurriak antolatuz eskubideak aitortzea

5.2.1. Osotasunaren ikuspegitik dagoeneko aitortzen diren eskubideak

Egun, zainketarako eskubidearen proposamen holistikoa ez dago aitortua, eta are gutxiago antolatuta. Dena den, badira zainketarako eskubide

generikoena eratzen duten hiru eskubide garrantzitsu. Zainketarako eskubidea eskubide integrala denez, eskubide horietako edozein urraketa berez lortzen ari den zainketarako eskubiderako sarbidearen eta baliatzearen adierazgarri gertatzen da. Mendekotasun egoeran zainketak jasotzeko eskubidea, zaindu nahi ote dugun erabakitzeko eskubidea eta, horren ildotik, ordaindutako lana eta ordaindu gabeko zainketa lana uztartzeko eskubidea, eta etxeko enpleguaren sektoreko lan-eskubideek osatzen dute zainketarako eskubidea.

Zainketarako eskubidea aitortzeari dagokionez aurrerapausoak egin badira ere, gure iritziz, aitortza hori oraindik partziala, hutsuneduna eta zatikatua da. Partziala dimentsio batzuei soilik eragiten dielako. Jasotzeko eskubideak eta ordaindutako eta ordaindu gabeko lana uztartzeko eskubi-deetan hobekuntzak egin badira ere, etxeko enpleguaren egoera, oraindik, kezkarria da. Hutsuneduna da ez direlako ezartzen behar adina neurri, aitortutako eskubideak benetan balia daitezen; zailtasun izugarri handiak daude plano formaletik plano errealerara igartzeko orduan. Argi eta garbi ikus daiteke mendekotasun egoeran zainketak jasotzeko eskubideari dagokionean, Mendekotasun Legean gabezia handiak baitaude. Eta, azken batean, zainketarako eskubidea aitortu egiten da, baina zatika, eskubide horiek gizarte talde batzuei soilik aitortzen zaizkielako. Adibidez, mendekotasunaren nozio estuak, legearen aplikazio eremutik kanpo uzten du zainketen beharra duen biztanleriaren zati handi bat, eta uztartze eskubideak, funtsean, lan-merkatu formalaren bitartez antolatzen dira.

Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiaren herri politiken funtsezko helburuetako bat biztanleria osoak zainketa duinetara sarbidea izan dezan bermatzea izan behar da. "Duintasuna" aipatzen dugunean, zera esan nahi dugu, ematen eta jasotzen diren zainketak "kantitatean" behar adinakoak izatea (dauden beharrak asetzea) eta "kalitatezkoak" izatea, hau da: askatasunez aukeratuak izatea (bakoitzak erabakitzeko ahalmena izatea, bere burua nola zaindu nahi duen edo beste batzuek bera nola zaintzea nahi duen; edo nola, noraino eta nor zaindu nahi duen), eta betegarriak izatea (norberaren "transzendentzia-zentzuei" erantzutea). Zainketa duinen ideiak pertsona guztiek elkar topatzen duguneko alderdi bikoitza konbinatzen du: zainketen jasotzaile gisa, eta zaintzaile potentzial gisa. Beste alderdia zainketa ezegonkorak dira: nahikoak ez direnak, askatasunez aukeratu ez

direnak edota betegarriak ez direnak. Zainketa ezegonkorren errealitateak, maiz, bazterkeriatik eta pobreziatik gertu egoten dira. Hau da, elementuren batek huts egiten duenean, ez dago erreakzionatzeko gaitasunik eta zainketak kolapso egoerara heltzen dira.

II. Berdintasun Planak, zainketarako eskubidean aurrera egiteko, jarraian aipatzen diren ikuspegi eta estrategiak balia ditzake, jarraian aipatzen diren eremuetan hobekuntzak gertatuko direla bermatuz:

1/ Mendekotasun Legea:

- Mendekotasun Legea ikuspegi feministatik balioestea. Balioespen horren arabera: Zein neurri ezar daitezke eskualdean gabeziei irtenbide bat emateko? Zein neurri abiarazi beharko lituzke estatuak agerian dauden beharrak estaltzeko?
- Ikuspegi berriak proposatzen ari diren dibertsitate funtzionaleko pertsonen elkarten ordezkari gotea (estatu mailan Bizitza independenterako Foroa aurkitu dugu, Gipuzkoan edo EAEn zein elkarte dauden bilatu beharko litzateke).
- Gipuzkoako Foru Aldundiak mendekotasunarekin lotuta erabiltzen duen lengoia berrikustea (adibidez, "ezintasunaz" hitz egiteaz uztea).
- Mendekotasuna duten pertsonen aitortza egitea, dimentsio guztietako zainketarako eskubidea duten subjektu bezala (zaintzea/ez zaintzea, zaintza duinak/zaindua izateko era, eta lan-eskubideak). Adibidez, batzuek senideek ez zaintzea aukeratzen dute: zein alternatiba egon daitezke kasu horietan?
- Enpresen esku-hartzea (zainketak merkantilizatzea); enpresek kudeatu beharko al lukete zainketen eskaintza? Irabazi asmorik gabeko entitateek edo gizarte-ekonomiako enpresek kudeatu beharko lituzketela deritzogu. Esaterako, Gipuzkoako Foru Aldundiak lurraldea gizarte-zerbitzuen azpiegitura egokiaz hornitzeko kudeatzen dituen laguntza planetan, horrelako entitateei eman beharko litzaieke lehentasuna. Aldi berean, sektorean sartuta dauden enpresak kontrolatu egin behar dira, lan-baldintza onak eta zainketa duinak daudela bermatzeko. Are gehiago, irabazi asmoak sektorean parte hartzea debekatu beharko ote litekeenaren inguruko eztabaida zabaltzea proposatzen dugu,

hau da, irabazi asmoak oinarrizko sektoreetan parte hartzerik ez duenaren ideia berreskuratzea, eta zainketak oinarrizko sektoretzat aintzatestea.

2/ Uztartze/erantzunkidetasun eskubideak: Ekonomia- eta lan-politika ardatzerako proposatzen ditugun estrategiak aintzat hartzeaz gainera, zera proposatzen dugu:

- Uztartze/erantzunkidetasun neurriak ikuspegi feminista eraldatzaile batetik balioestea. Balioespen horren arabera: Zein neurri ezar daitezke eskualdean gabeziei irtenbide bat emateko? Zein neurri abiarazi beharko lituzke estatuak agerian dauden beharrak estaltzeko? Horren ildotik, zainketen birbanaketa eta birbalorizaziorako neurrien konbinazio baten alde egin daiteke, baina zainketen feminizazioan erori gabe, eta zainketak zerbait "ederra" direnaren esentzializazioan erori gabe, jakin baitakigu, lehen esan dugun bezala, zainketek badutela ere alderdi gogaikarri eta "ez hain ederra".
- Gizonek zainketa zereginetan esku hartzea. Aitatasun baimenak erraztea, etxe barruan eta etxetik kanpo zainketak parteka daitezen sustapen-kanpainak egitea (zainketak etxe barruan gertatzen den zerbait bezala ulertu beharrean, gizarteari dagokion zerbait direla uler dadin), maskulinitate tailerrak.
- Lan-ordutegiak ezbaian jartzea, langileek (gizon eta emakumeek) zainketa ardurak dituztela onartuz, eta merkataritza ordutegien inguruko eztabaida zabaltzea; gure iritziz, hasiera batean, gelditu egin behar da ordutegiak zabaltzeko eta horien liberalizatzeko joera.
- Sindikatuekin eta enpresekin lan egitea, zainketarako eskubidea hitzarmen kolektiboetan aitor dadin.

2/ Etxeko enplegua, egungo testuinguruan araubide orokorrera igarotzen ari da eta zainketak globalizatzen ari dira:

- Langile guztiak araubidera igaro daitezen laguntzea, horretarako informazio-kanpainak abiaraziz, izapideak erraztuz...
- Zaintzaileen eta etxeko langileen lan-baldintzak betetzen diren zaintzea, etxeetan lan-ikuskapenak eginez, alderdiei informazioa eskainiz, langileentzako laguntza zerbitzuak eskainiz...

- Etxeko enpleguaren nolakotasun berezia murriztea: langilearen eta enplegatzailearen arteko banako harremanetik bitartekaritza bidezko harreman batera igarotzea sustatzea (zerbitzua erostea zuzenean kontratatzearen aurrean).
- Laneko bitartekaritza: publikoa eta irabazi asmoa duten enpresen gainean egotea, modu eraginkorrean. Horren ildotik, Asociación de Trabajadoras del Hogar - Etxeko Langileen Elkartek (ATH-ELEk) dion moduan, enplegu-agentzien jardura behatzea eta kontrolatzea.
- Profesionalizatzea: zeregin eta prestakuntza aitortzea.
- Negoziazio-eragileak zein izango diren zehaztea: nagusien elkartearen eta langileen elkartearen definizio ez argia (langileen elkartek ez dira aitortzen negoziatzeko alderdi gisa).
- Sindikaltzea babestea.

Egun, ikusi dugun bezala, etxeko langileen ehuneko handi bat emakume migratzaileek osatzen dute. Langileen kidegoarentzat, eskubideei dago-kienez, lan-egoerak gabezia handiak baditu, migratzaileek arazo erantsiak dituzte, haien irregulartasun egoeratik edo haien baimenen berriztapenagatik. Zehazki, zera proposatzen dugu:

- Zaintketen ikuspegi transnazionala sustatzea.
- Etxeko langileen kontrako gehiegikerien aurkako kanpainak egitea.
- Gehiegikeria egoerak salatu ahal izateko beharrezkoak diren baliabi-deak eskaintzea (laneko ikuskapenak sustatzea; doako aholkularitza eskaintzea; salatu nahi duten eta egoera irregularrean dauden langileen egonaldia bermatzea).
- Egoera irregularrean dauden eta krisialdi garaian haien baimenak berritserik izan ez duten etxeko langileen egoera erregularizatzeko laguntza eskaintzea.

5.2.2. Neurri posibleak: zaintzeko denbora, zaintzeko dirua eta zainketa zerbitzuak

Zaintketarako eskubidea hiru neurri moten bitartez antola daiteke: zaintzeko denbora, zaintzeko dirua eta zainketa zerbitzuak; horiek labur-labur azaltzen ditugu taula honetan.

Zaintzeko DENBORA	Zaintzeko DIRUA	Zaintzeta ZERBITZUAK
<ul style="list-style-type: none"> - Ordaindutako baimenak (amatasuna/aitatasuna, edoskitzaroa, haurdunaldiko arriskua) - Ordaindu gabeko lan-utzialdiak - Lanaldi murrizketa 	<ul style="list-style-type: none"> - Familia- edo Komunitate-ingurunean zaintzeko kontraprestazioa 	<ul style="list-style-type: none"> - Lantokian edo bizitokian - Estatuak edo enpresak ordaindutakoak - Zerbitzuak erosteko dirua edo zerbitzu publikoak

Jarraian, neurri bakoitzari dagokionez, pil-pilean dauden eztabaidak berreskuratuko ditugu, II Berdintasun Planari begira, proposamen zehatzak identifikatzeko baliagarriak izan daitezzen ¹⁵:

1/ Zaintzeko denbora

Laneko denbora liberatzeko prestazioak dira, denbora hori ordaindu gabeko zainketetara eskaintzeko helburuz (amatasun eta aitatasun baimenak, edoskitzarorako baimenak, familia zaintzeko lan-utzialdiak, lanaldi murrizketak, eta abar). Ordaindutakoak edo ordaindu gabeak izan daitezke, eta enplegutik liberatutako denbora ere gizarte segurantzei emandako denbora bezala zenbatu daiteke edo ez. Ordainduak ez direnei, sarritan egotzi egiten zaie emakumeek doako zaintzaile gisa duten rola indartzen dutela, eta emakumeen laneko eta bizitzako zaurgarritasuna areagotzen dutela. Gehienak emakume zein gizonentzat aitortuta daude, berdintasunez, baina eskubide hori baliatzen dutenak, ia beti, emakumeak dira. Salbuespena aitatasun baimena da; aitortua egon arren, bere iraupena ez dago amatasun baimenarekin batera orekatuta.

Prestazio horiek guztiak sektore formaleko ordaindutako lanarekin lotuta antolatzen dira, besteen kontura egiten den lanari lotuta. Lan-merkatuaren ezegonkortze prozesuarekin, lan-merkatu formalaren eta

¹⁵ Testu honetan oinarritua: Amaia Orozco (2010), *Cadenas globales de cuidados: ¿qué derechos para un régimen global de cuidados justo?*, UN-INSTRAW-UN WOMEN Webgune honetan eskura daiteke: <http://www.inmujer.es/documentacion/Documentos/DE0481.pdf>

informalaren arteko mugak lausotzen ari dira, eta biderkatu egin dira bere burua enplegatzen duten pertsonen poltsak; horrek zalantzan jartzen du zein puntutaraino diren esanguratsuak prestazio horiek.

2/ Zaintzeko dirua

Prestazio hauek kontraprestazio gisa ematen dira, familia-inguruneko pertsonaren bat zaintzeagatik. Ordaindu gabeko lanen eta sektoreko ordaindutako lanen arteko muga disolbatzen dute. Prestazio hauek oso polemikoak dira sektorean ezegonkortasuna areagotzeko modu bat bezala aintzatetsi daitezkeelako, edo dagoeneko guztiz doakoak ez diren, baina gaizki ordainduak dauden zainketez baliatzeko modu bat bezala aintzatetsi daitezkeelako. Horren aurrean ematen den argudioa da dagoeneko emakumeek etxeetan egiten duten lana balioesteko modua direla, eta horiei nolabaiteko askatasun ekonomikoa emateko modua direla. Azken batean, tentsioak dagoeneko existitzen diren lan horiek aitortzeko eta balioesteko moduan datza, horiek egiten dituztenei eskubide ekonomiko eta sozialak emanez, eta zainketa gehienak bide horretatik ematen den egoera hori indartu gabe.

Hortxe kokatzen da etxekoandreen soldatari buruzko eztabaida klasikoa. Eztabaida horrek, bere sorreran, aldarrikapenarekin lotutako kutsua zuen, ez posibilista; hala ere, gaur egun, bi lerro nagusien arabera antolatzen da eztabaida: ongizate estatu zaharragoen testuinguruan, familian mendekotasun egoeran dauden pertsonen zainketa informalen irudia aintzatesteko eta balioesteko aukera aztertzen da.

3/ Zainketa zerbitzuak

Senideek egiten duten zainketa erraztearen (zainketetarako denbora edo dirua ematea) alternatiba gisa, etxean (etxeko laguntza, esaterako) edo erakundeen guneetan (adinekoentzako egoitzak, haurtzaindegiak, eguneko edo gaueko zentroak, aldi baterako egonaldietarako zentroak, adingabeentzako eskolaz kanpoko jarduerak...) ematen diren zainketa zerbitzuak abiaraz daitezke. Enpresa pribatuak horrelako zerbitzuak eskaintzera behar daitezke, emakume langile kopuru jakin bat kontratatuta dagoen zentro-

tan haurtzaindegiak¹⁶ egoteko derrigortasunarekin gertatzen den bezala. Beste aukera bat izan daiteke ardura administrazioak bere gain hartzea, zuzenean, zerbitzuak administrazioak berak eskainiz; edo zeharka, zentro pribatuak (enpresek edo GKEk kudeatutakoak) finantzatzuz edo merkatuan erosketa librea finantzatzeko diru prestazioak emanez. Funtsezko eztabaida da zein mailataraino pribatizatu nahi diren zerbitzuok eta ea erabiltzaileek koordinketa egin beharko duten (osasunerako eskubidean gertatzen denaren kontra, zerbitzuok, sarritan, ez dira guztiz doakoak).

Berriz adierazi nahi dugu, iradokitako esparru politiko eta kontzeptua-lean oinarrituz, eta Gipuzkoako testuinguruan oinarrituz, iradoki ditugun estrategia eta neurriak "eraikuntza" fasean daudela, baina, aurreikusi bezala, Gipuzkoako Foru Aldundiko sailek, emakumeen elkarteen mugimenduak, mugimendu feministak eta udalerrietako berdintasun teknikariek berrikusi, eztabaidatu eta birformulatu beharko dituztela.

16 Zerbitzu horiek ama langileen rolaekin lotuta egon ohi dira, ez dira existitzen gizon langileen kasuan, eta adingabeen zaintza soilik estaltzen dute. Zerbitzua emakumeen enplegurako eskubidea bermatzeko modu gisa ulertu ohi da.

6. BIBLIOGRAFIA

6.1. Zainketak: esparru orokorra

Abasolo, Olga (2010). "Diálogo Mari Luz Esteban e Isabel Otxoa. El debate feminista en torno al concepto de cuidados", *Boletín ECOSeko* 10. alean, urtarril-mar-txoa, CIP-Ecosocial, jarraian dagoen webgunean eskura daiteke:

<http://www.fuhem.es/media/ecosocial/file/Boletin%20ECOS/Boletin%2010/DIALOGO%20Esteban-Otxoa.pdf>

Carrasco, Cristina (2011), "La economía del cuidado: planteamiento actual y de-safíos pendientes", *Revista de Economía Crítica*, 11. alea, 2011ko lehen seihile-koa, jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: http://revistaeconomiacritica.org/sites/default/files/revistas/n11/REC11_9_intervenciones_CristinaCarrasco.pdf

Carrasco, Cristina, Borderías, Cristina eta Torns, Teresa (arg.) (2011), *El trabajo de cuidados. Historia, teoría y políticas*, Libros la Catarata.

Esplen, Emily (2009), *Gender and Care. Overview Report*, Bridge Cutting Edge Pack, Institute of Development Studies (IDS), Brighton, jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: http://www.bridge.ids.ac.uk/reports/CEP_Care_OR.pdf

Esquivel, Valeria (2010), "La Economía del cuidado: un recorrido conceptual", *Seminario Virtual "La Economía Feminista y los Debates del Desarrollo en América Latina"*, IGTN Capítulo Latinoamericano-n. jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: <http://www.seminariovirtual.com.ar/seminario2010-2/documentos/DocumentoValeriaEsquivel.pdf>

Rodríguez Enríquez, Corina (2005), "Economía del cuidado y política económica: una aproximación a sus interrelaciones", *Panel Políticas de protección social, economía del cuidado y equidad de género*, CEPAL. jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: http://www.cepal.org/mujer/reuniones/mesa38/C_Rodriguez.pdf

Torns, Teresa (2005), "Tiempos de Trabajo, tiempos de vida", *Gaceta Sindical. Reflexión y debate*, 10. alea, 253-274 orr., jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: <http://www.ccoo.es/comunes/temp/recursos/1/pub7844.pdf>

6.2. Gurutzaketak beste botere-ardatzekin

Agulló, Cristina, Arroyo, Javier, Ema, José Enrique, Gámez, Chema, Gómez, Esther, Jiménez, Paulina, Rodríguez, Estanislao, Salvador, María, OrPla, Marina eta Colina, Marisa P. (arg.) (2011), *Cojos y precarias haciendo vidas que importan. Cuaderno sobre una alianza imprescindible*, Traficantes de sueños, Madril, jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: http://traficantes.net/index.php/content/download/28150/261267/file/libro_cojos_y_precarias_2.pdf

Pérez Orozco, Amaia eta López Gil, Silvia (2011): *Desigualdades a flor de piel: Cadenas globales de cuidados. Concreciones en el empleo de hogar y las políticas públicas*, Madril: NBE Emakumeak.

Yépez del Castillo, Isabel eta Herrera, Gioconda (arg.) (2007) *Nuevas migraciones latinoamericanas a Europa: balances y desafíos*. Quito: FLACSO / OBREAL / GRIAL / UB, jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: http://flacsoandes.org/web/imagesFTP/6513.NUEVAS_20MIGRACIONES_1_.pdf III. atala bereziki, Zainketaren lan merkatuari, feminizazioari eta ekonomiari buruzkoa.

6.3. Krisialdia

CEM (2008), "La crisis económica y la crisis del cuidado", *Argumentos para el cambio*, 79. alea, jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: <http://www.cem.cl/argumentos/ediciones/argu79.htm>

Ezquerria, Sandra (2011), "Crisis de los cuidados y crisis sistémica: la reproducción como pilar de la economía llamada real", *Revista de Investigaciones Feministas*, 2. liburukia, 175-187. orr., <http://revistas.ucm.es/index.php/INFE/article/view/38610/37335>

Precarias a la deriva (2004), "Cuidados globalizados", *A la deriva por los circuitos de la precariedad femenina-n*, Madril: Traficantes de Sueños, 217-48orr., jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: <http://www.nodo50.org/ts/editorial/librospdf/precarias/parte5-apuntes.pdf>

Río, Sira del (2003), "La crisis de los cuidados: precariedad a flor de piel" *Rescaldos. Revista de Diálogo Social*, 9. alea, 47-57. orr. Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: http://www.caesasociacion.org/feminismo/ficheros/la_crisis_de_los_cuidados.pdf

6.4. Zainketaren kulturak

Esteban, Mari Luz (2011), *Crítica del pensamiento amoroso*, Edicions Bellaterra.

Murillo, Soledad (1996): *El mito de la vida privada. De la entrega al tiempo propio*, Siglo XXI, Madrid.

Vega Solís, Cristina (2009), *Culturas del cuidado en transición. Espacios, sujetos e imaginarios en una sociedad de migración*, UOC Argitaletxea.

6.5. Zainteketen antolamendua gaur egun

Caixeta, Luzemir; Encarnación Gutiérrez-Rodríguez; Silvina Monteros; Shirley Tate; eta Cristina Vega Solís (2004), *Hogares, cuidados y fronteras... derechos de las mujeres inmigrantes y conciliación*, Madril: Traficantes de Sueños, jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: http://www.cruzroja.es/pls/portal30/docs/PAGE/SITE_CRE/ARBOL_CARPETAS/BB_QUE_HACEMOS/B60_EMPLEO/INFORME%20HOGARES%2CCUIDADOS...PDF

Campillo Poza, Inés (2010), "Políticas de conciliación de la vida laboral y familiar en los regímenes de bienestar mediterráneos: los casos de Italia y España", *Política y Sociedad*, 2010, 47. liburukia, 1. alea, 189-213 orr., jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: <http://revistas.ucm.es/cps/11308001/articulos/POS01010130189A.PDF>

Durán Heras, María Ángeles (2006) "Dependientes y cuidadores: el desafío de los próximos años", *Revista del Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales*, Madril: MTAS 60. alea, 57-64. orr., jarraian dagoen webgunean ikus dezakezu: http://repositoriodpd.net:8080/bitstream/handle/123456789/947/Art_DuranHerasMA_DependientesCuidadoresDesafio_2006.pdf?sequence=1

Villota Gil-Escóin, Paloma de (koord.) (2008), *Conciliación de la vida profesional y familiar. Políticas públicas de conciliación en la Unión Europea*, Síntesis

6.6. Zaintetarako eskubidea eta herri politika proposamenak

Arriagada, Irma (arg.) (2008), *Futuro de las familias y desafíos para las políticas*, CEPAL - Serie Seminarios y conferencias, 52. alea, http://www.eclac.org/publicaciones/xml/9/32699/ssc_52_Familias.pdf

(Bereziki erabili ditugun atalak: Rosario Aguirre "El futuro del cuidado", Laura Pautassi "nuevos desafíos para el abordaje del cuidado desde el enfoque de derechos", José Olavarría "Distribución del trabajo en las familias y (nuevas) masculinidades" eta Jeanine Anderson "Nuevas políticas sociales de producción y reproducción")

Castro, Isabel, Mari Luz Esteban, Arantza Fernández de Garaialde, Maria Luisa Menéndez, Isabel Otxoa, Mari Carmen Saiz (2008), *No habrá igualdad sin servicios públicos y reparto del cuidado. Algunas ideas para una política feminista*. Mendekoen Arretarako Euskal Sistema Publiko baten aldeko Plataforma, <http://www.fuhem.es/media/ecosocial/file/Boletin%20ECOS/Boletin%2010/PONENCIA-CUIDADOS.pdf>

Gherardi, Natalia (2009): *El acceso al cuidado desde un enfoque de derechos: nuevos escenarios, nuevos actores*, Krisialdi ekonomiko eta finantzarioa ge-

nero ikuspegitik Aztertzeko Adituen Batzarrean egindako hitzaldia, México D.F. Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: http://www.cepal.org/mujer/noticias/paginas/5/36595/Resumen_Gherardi_Mesa4.pdf

Montaño, Sonia eta Calderón Magaña, Coral (koord.), *El cuidado en acción. Entre el derecho y el trabajo*, Nazio Batuak. Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: <http://www.eclac.org/publicaciones/xml/9/40119/CUE94.pdf> (Sonia Montaño "El cuidado en acción" eta de Laura Pautassi "Cuidados y derechos: la nueva cuestión social" atalak, batez ere).

Orozco, Amaia (2010), *Cadenas Globales de cuidado ¿Qué derechos para un régimen global de cuidados justo?*, UN-INSTRAW. Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: http://www.mueveteporlaigualdad.org/publicaciones/derechosparaunregimenglobaldecuidadosjusto_2010.pdf

Pautassi, Laura C. (2007), *El cuidado como una cuestión social desde un enfoque de derechos*, Serie Mujer y Desarrollo, 87. alea, CEPAL, <http://www.eclac.org/publicaciones/xml/5/31535/lcl2800.pdf>

PNUD-LNE (2009), *Trabajo y Familia: Hacia nuevas formas de conciliación: con corresponsabilidad social*, Santiago: PNUD-LNE, 45-84. orr. Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: http://www.ilo.org/wcmsp5/groups/public/---d-greports/---gender/documents/publication/wcms_111376.pdf

6.7. Kritika sistemari zainketetatik

Dones i Treball (2011), *Decàleg sobre la cura de les persones. Idees per a una reflexió conjunta*, jarrain dagoen webgunean eskura daiteke: <http://www.caladona.org/grups/uploads/2012/04/decaleg-sobre-la-cura-de-les-persones-idees-per-a-una-reflexio-conjunta-dones-i-treballs.pdf>

Gil, Silvia L. (2011), *Nuevos feminismos. Sentidos comunes en la dispersión. Una historia de trayectorias y rupturas en el estado español*, Madril:

Traficantes de Sueños, 3. ataleko 4. idazpurua, batez ere: La lucha es global o no será: el trabajo de cuidados. Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: http://traficantes.net/index.php/content/download/28063/260518/file/mov_11_FINAL.pdf

Herrero, Yayo (2010), "Cuidar: una práctica política anticapitalista y antipatriarcal" en Taibo, Carlos (zuz.), *Decrecimientos. Sobre lo que hay que cambiar en la vida cotidiana*, Madrid: Los Libros de la Catarata, págs. 17- 30. Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: http://www.google.com/url?q=http://www.ubu.es/ubu/cm/ubu/images%3Flocale%3Des_ES%26textOnly%3Dfalse%26idMedia%3D120715&sa=U&ei=2C6RT-qVHYTD8QPukpSbBA&ved=0CAkQFjAC&client=internal-uds-cse&usq=AFQjCNHGQq-rBaW2KuRO2A_tv5q9R2CaGQ

Izquierdo, Maria Jesús (2003), "Del sexismo y la mercantilización del cuidado a su socialización: Hacia una política democrática del cuidado", en *Cuidar cuesta: costes y beneficios del cuidado*, Donostia: Emakunde, 2003ko urriaren 12 eta 13. Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: http://www.fuhem.es/media/cdv/file/biblioteca/Boletin_ECOS/10/Socializacion_del_cuidado.pdf

Precarias a la deriva (2005), "Una huelga de mucho cuidado: cuatro hipótesis", *Archipiélago. Cuadernos de Crítica de la Cultura*. Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: <http://eipcp.net/transversal/0704/precarias2/es>

6.8. Esku-hartze politikorako gidak

ESCAP y PNUD (2003), *Integrating Unpaid Work into National Policies – A Guidebook* Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: http://www.unescap.org/stat/meet/wipuw/unpaid_guide.asp

SIDA, *Quick Guide to What and How: Unpaid Care Work– Entry Points to Recognise, Reduce and Redistribute*, SWEDISH INTERNATIONAL DEVELOPMENT COOPERATION AGENCY. Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: <http://www.oecd.org/dataoecd/30/11/47565971.pdf>

6.9. Etxeko enplegua

Aganzo, Andrés eta Cristina Galletero (coords.) (2007), *Las trabajadoras de hogar en España*, Madril: Cáritas Española Editores

Human's Rights Watch (2006), *Oculto bajo la alfombra. Abusos contra trabajadoras domésticas en todo el mundo*, HRW. Gaztelaniazko laburpena jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: <http://www.hrw.org/reports/2006/wrd0706/wrd0706summarysp.pdf> testu osoa, ingelesez <http://www.hrw.org/en/reports/2006/07/27/swept-under-rug>

LNE (2009), *Trabajo decente para los trabajadores domésticos*, IV. Txostena (1), LNE. Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: http://www.ilo.org/wcmsp5/groups/public/---ed_norm/---relconf/documents/meetingdocument/wcms_104703.pdf

LNE (2009), *Trabajo decente para los trabajadores domésticos*, IV. Txostena (2), LNE. Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: http://www.ilo.org/wcmsp5/groups/public/---ed_norm/---relconf/documents/meetingdocument/wcms_124841.pdf

Revista Internacional del Trabajo, 129. liburkia, 4. alea. Zaintzen Langileei buruzko Monografikoa, LNE, Geneva, Abendua. Jarraian dagoen webgunean eskura daiteke: <http://www.ilo.org/public/spanish/revue/sommaire/129-4.htm>

7. BALIABIDEAK SAREAN

Gizarte Garapenerako Nazio Batuen Ikerketa Institutuak egindako **"Zainketaren Ekonomia Politiko eta Soziala"**ri buruzko proiektuaren webgunea: <http://www.unrisd.org/80256B3C005BB128/%28httpProjects%29/37BD128E275F1F8BC1257296003210EC?OpenDocument>

Nazio Batuen Estatistika Erakundea, **denboraren erabilerari** buruzko Unitatea: <http://unstats.un.org/unsd/demographic/sconcerns/tuse/>

Denboraren erabilera ikertzeko Zentroa <http://www.timeuse.org/>

Emakumeen Egoerari buruzko Batzordearen 53. Saioa (Nazio Batuak). Gai nagusia: **ardurak gizonen eta emakumeen artean berdintasunez banatzea**, GIB/HIES testuingurueta zainketa kasuak barne: <http://www.un.org/women-watch/daw/csw/53sess.htm>

Errespetua eta eskubideak: **Etxeko langileentzako babesa** <http://es.domesticworkerrights.org/>

Lanaren Nazioarteko Konferentziaren 100. batzarra, 2011ko ekainaren 1-17. Gai nagusia: **"Gizalegezko lana etxeko langileentzat"** <http://www.ilo.org/ilc/ILCSessions/100thSession/lang--es/index.htm>

Centre d'Estudis Sociològics sobre la Vida Quotidiana i el Treball. Lana eta eguneroko bizitzaren esparruak lotzen dituen azterlan-ildoak garatzen dute. Haien webgunean argitalpenak eta prestakuntza jarduerak kontsulta daitezke: <http://quit.uab.es/>

